

URTEKO TXOSTENA

2006

Aldizkari hau honako helbide honetan dago eskuragarri:

<http://www.ogasun.ejgv.euskadi.net/r51-341/es>

harremanerako helbide elektroniko eta telefonoa:

economia@ej-gv.es

[945-01.90.77](tel:945-01.90.77)

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Ogasun eta Herri Administrazio Saila
Donosita-San Sebastián, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz

Egilea: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza

Legezko gordailua: VI 501/06

ISSN: 1887-1526


AURKIBIDEA

0 EKONOMIAREN EGOERA LABURBILDUTA	1
1 EAE-KO EKONOMIAREN TESTUINGURUA	10
Munduko ekonomiaren bilakaera	10
Analisia herrialdeka	13
Espainiako ekonomia	18
2 EAE-KO EKONOMIAREN ANALISIA	21
2.1 EKOIZPEN ARLOAK	21
Sarrera	21
Lehen arloa	22
Industria	23
Eraikuntza	27
Zerbitzuak	28
2.2 ESKARIA	31
Sarrera	31
Gastua azken kontsumoan	32
Kapital eraketa gordina	34
Kanpo saldoa eta lehiakortasuna	35
2.3 LAN MERKATUA	47
2.4 PREZIOAK, KOSTUAK ETA SOLDATAK	55
Prezioak	56
Kostuak eta soldatak	61
2.5 ARLO PUBLIKOA	63
2.6 FINANTZA ARLOA	66
3 EAE-RAKO ETA TESTUINGURURAKO EKONOMIA AURREIKUSPENAK	73
3.1 KANPO TESTUINGURUARENTZAT EGINIKO AURREIKUSPENAK	73
3.2 EAE-RAKO AURREIKUSPENAK	79
ESTATISTIKA ERANSKINA	83


0 EKONOMIAREN EGOERA LABURBILDUTA

2006. urtean, EAEko ekonomiak bere hazkunde erritmoa bizkortzeko joerari eutsi zion, dagoeneko hamahiru urtez luzatzen den ziklo hedakor baten barruan. Zehazkiago adierazita, barne produktu gordina (BPG) %4,2 gehitu zen azken ekitaldian eta termino errealetan, azken sei urteetako tasarik altuena delarik (1. irudia). Zalantzarik gabe, oso emaitza ona da, bereziki ekonomia aurreratuen multzoak izan dituen datuekin alderatzen bada. Izan ere, herrialde horiek, batez bestean, gehikuntza tasa garrantzitsuak ere jaso zituzten, baina %3,1era mugatu zuten hazkundera. Are gehiago, 2007. urterako dagoeneko ezagutzen diren datuek eta datozen urteetarako aurreikuspenek agerian uzten dute EAEko ekonomiaren hazkundera datozen urteetan ere jarraituko duela aurreratzen dute, nahiz eta aldakuntza tasak txikiagoak izango diren.

EAEko ekonomiaren bilakaera 1. irudia



Munduko ekonomiaren bilakaera 2. irudia



Iturria: Eustat eta NDF.

EAEko ekonomiak lortu duen hazkunde garrantzitsua azken hogeita bost urteetan aurrekaririk ez daukan bizitasun ekonomiko orokorreko testuinguru batean kokatzen da. Hain zuzen ere, munduko ekonomiak, oro har, azken hamarkadetako aldakuntza tasa handienak –erosteko ahalmenaren parekotasunean neurtuta- 2004 eta 2006 urteen bitarteko epealdian lortu zituen,

2006ko urteko txostena

hiru urte horietarako, batez beste, %5etik gorako tasa bat jaso zuelarik eta gehienezko balioa, %5,4, 2006. urtean bertan izan zuelarik. Bi eremu ekonomiko nagusiek, hots, ekonomia aurreratuek osatzen dutenak eta garapen bidean dauden herrialdeak biltzen dituenak, oso hazkunde garrantzitsuak izan zituzten, baina azken horiek izan ziren bizitasun handiena erakutsi zutenak. Horri esker, garatutako herrialde guztiek batera munduko ekonomiaren hazkundeari ekarri ziotena halako bi eta gehiago ekarri zioten garapen bidean daudenek (1. taula). Munduko bi ekonomia nagusien (AEB eta Japonia) gehi Europar Batasun osoaren ekarpenen batuketa baino handiagoa izan zen Txinarena.

EKONOMIA EREMUEN PISUA, HAZKUNDEA ETA EKARPENAK 1. TAULA

	Pisua	Hazkundera	Ekarpena		Pisua	Hazkundera	Ekarpena
Ekonomia garatuak	52,0	2,9	1,5	Garatu gabeak	48,0	8,1	3,9
AEB	19,7	2,9	0,6	Txina	15,1	11,1	1,7
Eurogunea	14,7	2,8	0,4	India	6,3	9,7	0,6
Japonia	6,3	2,2	0,1	Errusia	2,6	6,7	0,2
Erresuma Batua	3,2	2,8	0,1	Brasil	2,6	3,7	0,1
Kanada	1,7	2,8	0,0	Mexiko	1,8	4,8	0,1
Besteak	6,4	4,4	0,3	Besteak	19,6	6,3	1,2

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, NDFren datuetan oinarrituta.

Asiako erraldoiak zorabiatzeko moduko bizitasunean hazteari eusten dio, aurreko urteetako emaitzak berak ere gaindituz. Are harrigarriagoa da kontuan hartzen bada ekonomiaren hazkundera galgatzeko neurriak hartu direla, hala nola, kredituak murriztuz, inbertsio jakin batzuk mugatuz, txanponaren balio irabazi txikiak ezarriz, eta abar. India ere, eremu horretako beste herrialde nagusia baita, urte arteko gehikuntza tasa garrantzitsuak ari da lortzen eta hazkunde orekatuagoa lortzeko oinarriak ezartzen ari da.

Herrialde garatuetako multzoari dagokionez, 2006. urteak aurreko urtekoa baino aldakuntza tasa altuago bat utzi zuen, eremuen banaketan osaera orekatuagoa izan zelako. Alde batetik, Amerikako Estatu Batuek aurreko urteetako bizitasunari eutsi zion, nahiz eta moteltzeko joera arina erakutsi zuen. Beste aldetik, hala Japoniak nola, batez ere, Europar Batasunak aurreko urteko emaitzak hobetu zituzten.

Bereziki azpimarragarria da Europar Batasunak lortu zuen hazkunde erritmoa, %3,0ko urte arteko aldakuntza tasa, azken sei urteetan ekonomia horrek lortu duen tasarik altuena baita. Emaitza on hori lortzeko arrazoiak asko dira; batzuek kanpoko jatorria dute, hala nola munduko ekonomiaren bizitasuna, merkataritzako harremanak bultzatzen baititu; eta beste batzuek lurraldean bertan sortuak, Lisboako Estrategia deitzen den erreformen egitaraua da horietako bat. Moneta merkatuetako baldintza oraindik erosoak eta enpresen soberakinen igoera ere aipatu behar dira Europako hazkundera bultzatu duten alderdien artean.

BPG ERREALAREN BILAKAERA

2. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2001	2002	2003	2004	2005	2006
Munduko ekonomia	2,5	3,1	4,0	5,3	4,8	5,4
AEB	0,8	1,6	2,5	3,6	3,1	2,9
Japonia	0,2	0,3	1,4	2,7	1,9	2,2
Txina	8,3	9,1	10,0	10,1	10,4	11,1
Europar Batasuna	2,1	1,4	1,5	2,7	2,0	3,2
- Alemania	1,2	0,0	-0,3	1,1	0,8	2,9
- Frantzia	1,9	1,0	1,1	2,5	1,7	2,0
- Erresuma Batua	2,4	2,1	2,8	3,3	1,8	2,8
- Italia	1,8	0,3	0,0	1,2	0,1	1,9
- Espainia	3,6	2,7	3,1	3,3	3,6	3,9
- EAE	3,2	2,3	3,1	3,6	3,9	4,2

Iturria: NDF eta Eustat.

2006. urtean, munduko ekonomiak bizi zituen arrisku nagusietako bat lehengai garrantzitsuenen garestitzea izan zen. Prezioen igoeraren atzean garapen bidean dauden herrialdeek zein ekonomia aurreratuek ondasun horietaz egin zuten eskaria handiagoa dago. Hain zuzen ere, lehengaien indize orokorra ia 40 puntu igo zen 2005. urteko batez besteko balioaren aldean, neurri handi batean industriako ondasun metalikoez izan zuten goranzko bilakaeraren ondorioz (4. irudia). Urte arteko aldakuntza tasetan, igoera hori %27,5koa izan zen, batez beste, lehengai guztietarako, %11,2 elikagaietarako eta %62,0 industriako lehengai metalikoetarako. Aldakuntza tasa horiek antzekoak izan ziren dolarretan eta eurotan, zeren eta bi txanpon horien arteko truke tasaren aldakuntza ez baitzen %1era ere iritsi urteko batez bestean, 2006. urtean zehar dibisa horien kotizazioetan gorabehera handiak gertatu ziren arren.


2006ko urteko txostena

Petrolioaren salneurriak ere gehikuntza garrantzitsua izan zuen txosten honetako erreferentzia urtean, 2001. urtetik etengabe gertatu diren igoerei gehitu behar zaiena. Hain zuzen ere, ekoizkin horren prezioa hirukoiztu egin da, XX. mendeko azken urteetan upela 20 dolarretan saltzen zenetik 2006. urtean batez beste ordaindu ziren 65 dolarretara iritsi arte. Petrolioaren prezioaren bilakaera izan zen arrisku nagusietako bat munduko ekonomiarentzat, adituen iritziz. Hala eta guztiz ere, inflazioak, oro har, ez zuen okerrera egin ekoizkin horien bilakaeraren ondorioz eta ekonomia eremu gehienetan kontrolpean egon zen.

Petrolioaren prezioa

3. irudia


Dolarrak upel bakoitzeko



Lehengai metalikoen indizea

4. irudia

2000 oinarri urtea = 100



Iturria: Ekonomia eta Ogasun Ministerioa.

Testuinguru ekonomiko horretan, EAEko ekonomiak aurreko urteetan erakutsitako bilakaera onari eutsi zion eta 2006. urtean %4,2 gehitu zuen bere barne produktu gordina. Tasa hori azken sei urteetako altuena da eta 2002. urtean hasitako goranzko joera batean dago kokatuta. Hazkunde horren ondorioz, biztanle bakoitzeko BPG, erosteko ahalmenaren parekotasunean neurtuta, 129,9ra igo da, Europar Batasunaren batez bestea 100eko mailan dagoelarik. Are gehiago, 2007. urteko lehen seihilekoan jasotako tasek emaitza ona iragartzen dute urte osorako.

Hazkunde ereduak ia ez zuen aldaketarik erakutsi 2005ean izandakoaren aldean. Izan ere, barne eskaria izan zen berriro EAEko ekonomiaren bultzagile nagusia, kanpo arloak BPGren gehikuntzari sei hamarren kendu zizkion bitartean. Beraz, barne eskaria gehiago hazi zen arren eta, horren ondorioz, inportazioak areagotu baziren ere, kanpo saldoak ez zuen handitu bere ekarpen negatiboa, EAEko ekoizkinak erosten dituzten herrialdeen egoerak hobera egin zuelako, lurralde horietan saldutakoa areagotuz.

EAE-KO TAULA MAKROEKONOMIKOA

3. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2001	2002	2003	2004	2005(a)	2006(a)
Barneko azken kontsumoa	3,7	2,5	4,1	4,4	3,8	3,9
Familien kontsumoko gastua	2,6	2,5	3,7	4,6	4,1	4,2
Herri administrazioen kontsumoa	8,2	2,5	5,8	3,7	2,7	2,8
Kapital eraketa gordina	5,1	5,0	5,1	7,5	6,1	6,0
Barne eskaria	4,0	3,2	4,4	5,2	4,4	4,5
Kanpo saldoaren ekarpena(*)	-0,8	-0,9	-1,4	-1,7	-0,7	-0,5
Esportazioak	1,7	-0,9	-0,8	4,8	5,1	7,5
Inportazioak	2,8	0,3	1,3	7,3	5,8	7,7
BPG (m.p.)	3,3	2,4	3,1	3,7	4,0	4,2
Lehen arloa	10,3	-0,7	-6,1	31,3	-13,8	-9,8
Industria	2,5	1,1	1,2	2,9	4,9	4,9
Eraikuntza	9,2	5,2	4,9	4,4	4,7	5,1
Zerbitzuak	3,1	2,7	3,3	3,3	3,5	3,8
Merkatuko zerbitzuak	3,2	2,7	3,6	3,5	3,5	4,1
Merkatukoak ez diren zerbitzuak	2,8	2,6	1,7	2,0	3,4	2,0
Balio erantsi gordina	3,4	2,3	2,7	3,6	3,8	4,1
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	2,1	2,6	7,6	4,5	5,0	5,3

(a) Aurrerapena.

(*) BPGren hazkundeari eginiko ekarpena ehuneko puntutan.

Iturria: Eustat.

Barne eskariaren guztizkoak %4,5eko urte arteko aldakuntza tasa lortu zuen, aurreko urteko datua hamarren batean areagotuz. Bi osagai nagusien arteko banaketak ia ez du aldaketarik izan 2005. urteko emaitzen aldean. Izan ere, kapitaleko eraketa gordinak %6,0 gehitu zuen bere balioa, eraikuntzako inbertsioak aurreko bizitasunari eutsi ziolako eta ekoizteko inbertsioa

2006ko urteko txostena

gehiago hazi zelako. Azken kontsumoan egindako gastuak, berriz, hamarren bat areagotu zuen bere aldakuntza tasa, %3,9ra arte. Aldagai horren barruan, familien kontsumoa, lehenengo aldiz bost urtean, ekoizpenaren gehikuntzara egokitu du bere hazkundera. Kontsumo publikoa, berriz, aurreko urtean baino zertxobait gehiago hazi bazen ere, gastua gehiegi ez hazteko erabakiaren menpean jarraitzen du.

Eskaintzaren ikuspegitik, balio erantsiaren guztizkoak azken bosturtekoan izandako joera hedakorrari eutsi zion eta ekoizkinen gaineko zergak ekonomiaren batez bestea baino gehiago hazi ziren. 2006. urtean, EAEko hazkundera ekoizpen arloen arabera aztertuta orekatuagoa izan zen aurreko urteetan baino. Izan ere, sektore batzuen eta besteen arteko hazkunde aldea txikiagoa izan zen. Beste ekitaldi batez, eraikuntza izan zen hazkunde tasa handiena jaso zuen ekonomia arloa, baina zertxobait moteldu zuen aurreko urtean jasotako bultzada sendoa. Aitzitik, industriak bere hazkunde erritmoari eutsi zion eta eraikuntzaren tasara hurbildu zen. Horiek horrela izanda, industria izan daiteke eraikuntzarentzat aurreikusten den apaltzearen ondoren lidergoa har dezakeen jarduera. Azkenik, merkaturatzen ez diren zerbitzuen hazkunde tasa txikiagoak sektorearen emaitza galgatu zuen, nahiz eta merkaturatzen diren zerbitzuak erritmo onean hazi ziren.

EAE-KO EKONOMIAREN BESTE ALDAGAI NAGUSI ZENBAIT

4. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2001	2002	2003	2004	2005	2006
Biztanleko BPG EAPan neurtuta (UE27=100)	119,8	122,4	124,6	125,4	128,5	129,9
BPG erreala merkatu prezioetan	3,3	2,4	3,1	3,7	4,0	4,2
Enplegua	3,2	2,2	2,5	2,8	2,2	2,3
Lan faktorearen itxurazko ekoizkortasuna	0,1	0,2	0,6	0,9	1,8	1,9
BPG nominala merkatu prezioetan	5,5	5,2	6,5	8,3	7,5	7,8
BPGren deflatoea	2,1	2,8	3,3	4,4	3,4	3,4
KPI (urteko batez besteak)	3,9	3,7	2,8	3,0	3,3	3,4
Soldata-igoera	4,5	3,9	4,4	4,0	4,5	4,9
Langabezia tasa (*):	11,1	8,3	8,6	7,8	5,7	4,1

(*) Europar Batzordeko CE 1897/2000 erregelamenduak zenbait aldaketa ekarri zituen pertsona bat langabetzat jotzeko orduan. Horren ondorioz, 2002ko datuak eta ondorengoak ezin dira zuzenean alderatu aurreko datuekin.

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten, Eurostaten, INEren eta Lan Harremanen Kontseiluaren datuetan oinarrituta.

EAEko ekonomiak lortu zuen bultzada garrantzitsuak bere isla izan zuen Eustatek argitaratzen duen hiruhilabetekako kontabilitatean estimatzen diren lanpostuen kopuruan, nabarmen areagotu baitzen. Aldagai hori %2,3 hazi zen, urte osoan 22.000 lanpostu garbi sortu zirela agerian utziz. Lanpostu horietako gehienak zerbitzuetan sortu ziren, baina hazkunde tasa altuena eraikuntzak lortu zuen. Industriak, ordea, bere langileen kopurua murriztu zuen berriro, aipatu den bezala sektore horretako jarduera nabarmen areagotu zen arren. Konbinaketa horren ondorioz, industria arloko ekoizkortasun irabaziak %5 baino gehiago handitu ziren eta ekonomia osoaren eraginkortasuna hobetzen lagundu zuten, zenbait urtetan (2001etik 2003ra, alegia) ekoizkortasun irabaziak oso gutxi hazi ondoren.

Enpleguaren sorrerarekin batera langabezia tasak berriro egin zuen behera eta lehenengo aldiz hirurogeita hamarreko hamarkadaren erdialdetik enplegu betean deitzen den mailan kokatu zen. Langabeziaren jaitsiera lan merkatuan arazo gehien dituzten kolektiboetan ere (emakumeak eta gazteak) hauteman zen, beraien langabezia tasetan beherakada garrantzitsuak lortu zituztelako. Horri esker, EAEko langabezia tasa Europako batez bestearen mailan baino lau puntu beherako kokatu zen 2006. urtean.

2006. urtean gertatutako bilakaeren artean, emaitza txarra izan zuten alderdietako bat inflazioa izan zen, prezioen gehikuntza Europako Banku Zentralak ezarri zuen helburura (%2,0) eramatea ezinezkoa izan zelako. Hain zuzen ere, BPGren deflatoreak ez zuen aldaketarik izan eta %3,4ko urte arteko aldakuntza tasa jaso zuen. Kontsumoko prezioek, berriz, moteltze garrantzitsua erakutsi zuten urte osoan zehar, abenduan %2,6an kokatu arte, nahiz eta urteko batez bestean 2005eko datua gainditu zuten. Adierazle honen bilakaera petrolioaren salneurriaren nondik norakoek baldintzatu zuten eta urteko lehen erdian gorakada nabarmena izan ondoren, behera egin zuten merkatu horretako tentsioak lasaitzen ziren heinean. Aurreko guztiaren ondorioz, Eurogunearrekiko inflazio tarteak, batez beste, ehuneko puntuaren zertxobait gaintik mantendu zen 2006. urtean.

Prezioen gaineko kontrol ezak negoziazio kolektiboan adostutako soldaten igoera garrantzitsu bat eragin zuen, aurreko urteetako akordioek gaintik. KPI indizeak 2005eko abenduan izan zuen datu txarra 2006. urtean indarrean zeuden lan hitzarmenetara igaro zen, urte horretako inflazioa askoz apalagoa izan arren. Hala eta guztiz ere, lan kostuen estatistikak adierazten du kostu horiek nabarmen gutxiago hazi zirela. Bi estatistika horien arteko aldeak iradokitzen du osatera efektu bat gertatu dela, langile berriek zaharrek baino soldata apalagoak dituztelako. Horren ondorioz, kostuen goranzko presioa zerbait arindu da.

2006ko urteko txostena

Epe ertaineko ikuspegi batean, moteltzeko joera aurreikusten da bai ekonomia aurreratuentzat bai Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomiarentzat ere. AEBetako higiezin merkatuan sortu den krisiak kalte egin diezaioke herrialde hartako hazkunde erritmoari eta pentsatzekoa da Europa ere kaltetuko duela, hala 2007. urtean nola, bereziki, 2008. urtean. Aurreko guztiaren ondorioz, datorren urtean Europako barne produktu gordina gutxiago haziko dela aurreikusten da. Moteltze hori nabarmenagoa izango da Espainiakoa bezalako ekonomietan, azken urteetako hazkunde bizia eraikuntzaren sendotasunean oinarritu dutelako. Horiek horrela, Estatuarentzat hazkunde tasa altua iragartzen da 2007. urterako, baina ia puntu bat txikiagoa da 2008. urterako espero den gehikuntza tasa.

Europar herrialdeen artean apaltzeko joera orokorra aurreikusita, EAEko ekonomiak ere gero eta txikiagoak izango diren urte arteko aldakuntza tasak jasoko ditu, baina bere barne produktu gordina oraindik nabarmen areagotuko da. Eskariaren ikuspegitik, familien gastua gutxiago haziko dela aurreikusten da, aurrezteko joera piztuko den bitartean, interes tasek dagoeneko ez dutelako horrenbeste erraztasunik zorrak hartzeko eta, aitzitik, dirua bankuetan gordetzea errentagarriagoa egiten dutelako. Barne eskariaren beste osagai nagusiak, hots, kapital eraketa gordinak, bere hazkunde tasa murriztuko du etxebizitzetan eginiko inbertsioa motelduko delako. Hala eta guztiz ere, hala obra zibilak nola ekipamendurako ondasunetan eginiko inbertsioak kapital eraketa gordinaren gehikuntza tasa EAEko ekonomiaren batez bestetik gora mantenduko dute. Are gehiago, barne eskariaren apaltzeak errazagoa egingo du kanpo arloaren oreka, kanpo arloak BPGren hazkundera egiten dion ekarpen negatiboa hurrengo urteetan txikiagoa izango dela aurreikusiz.

Eskaintzaren ikuspegitik, eraikuntzak motelduko du bere hazkunde erritmoa neurri handiagoan, bederatzi urtez jarraian %4tik gorako gehikuntza tasak lortu ondoren. Etxebizitza politikek, interes tasen igoerek eta arlo horren urte onetan metatu den gehiegizko eskaintzak etxebizitzak erosteko eskaria mugatuko dute datozen urteetan. Industriak herrialde bezeroen eta EAEko ekonomiaren beraren barne eskarien moteltzea nabarituko du, baina gehikuntza tasa garrantzitsuak lortuko ditu berriro. Azkenik, zerbitzuek ohiko egonkortasunari eutsiko diote, baina kontsumo pribatuaren zein industria jardueraren bultzada txikiagoaren eragina hautemango dute. Hala ere, arlo horrek izango duen apaltzea gainontzeko sektoreena baino arinagoa izango da.

EAE-RAKO EKONOMIA AURREIKUSPENA

5. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2005	2006	2007	2008	2009	2010
BPG erreala	4,0	4,2	4,0	3,6	3,2	2,7
BPGren deflatoea	3,4	3,5	3,3	3,2	3,0	3,1
Enplegua	2,2	2,3	2,5	2,1	1,8	1,3
Langabezia tasa	5,7	4,1	3,5	3,7	3,7	3,9

Iturria: Eustat eta Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

Txosten honetan aurreikusten den eszenarioan enplegu sorrera azken urteetako baino mugatuagoa izango da, baina horrek ez dio kalterik egingo lortu den langabezia tasa apalari, lan merkatuan parte hartuko duten pertsona berrien kopurua nahiko txikia izango delako. Azkenik, BPGren deflatoeak aurrerapen txiki bat lortuko du datozen urteetan, eskariaren presioa arinduko delako. Hala ere, prezioak nahi baino gehiago haziko dira berriro.

1 EAE-KO EKONOMIAREN TESTUINGURUA

Munduko ekonomiaren bilakaera

2006. urtean, munduko ekonomiak hazkunde erritmo sendoari eutsi zion eta BPGren gehikuntza garrantzitsua lortu zuen berriro. Hain zuzen ere, %5,4ko tasa jaso zuen, 2005. urtean izan zuena baino puntu erdi bat gehiago. Halaber, emaitza hori NDFk 1980. urtean hasi zuen serie historikoko daturik altuena da. Gehikuntza hori azpimarragarriagoa da kontuan hartzen bada urte horretan oinarritzko ondasunak asko garestitu zirela, epe laburrerako interes tasak igo zirela eta finantza merkatuetan gorabehera handiak bizi zirela.

EKONOMIAREN ALDAGAI NAGUSIAK

6. TAULA

	BPG erreala		Inflazioa		Langabezia tasa	
	2005	2006	2005	2006	2005	2006
Mundua	4,9	5,4	3,7	3,8	---	---
Txina	10,4	11,1	1,6	1,8	---	---
ELGE	2,6	3,2	---	---	6,5	5,6
AEB	3,1	2,9	3,4	3,2	5,1	4,6
Japonia	1,9	2,2	-0,6	0,2	4,4	4,1
EB 27	1,8	3,0	2,3	2,3	8,7	7,9
Alemania	0,8	2,9	1,9	1,8	9,4	8,4
Frantzia	1,7	2,0	1,9	1,9	9,7	9,5
Erresuma Batua	1,8	2,8	2,1	2,3	4,8	5,3
Italia	0,1	1,9	2,2	2,2	7,7	6,8
Espainia	3,5	3,9	3,4	3,6	9,2	8,5
Garapen bidean dauden herrialdeak	7,5	7,9	5,4	5,3	---	---
Afrika	5,6	5,5	8,4	9,5	---	---
Asia	9,2	9,4	3,6	4,0	---	---
Hego eta erdialdeko Amerika	4,6	5,5	6,3	5,4	---	---
Trantsizioan dauden herrialdeak	5,5	6,0	4,8	5,0	---	---





Iturria: ELGE, NDF eta Eurostat.

Munduko ekonomiaren bizitasuna, neurri handi batean, garapen bidean dauden herrialdeen hazkundearen ondorioa da, hauek ere azken hogeita bost urteetako emaitzarik onena jaso zutelako. Interes tasa apalek eta munduan, oro har, dagoen likidezia handiak lagundu dute herrialde horien hazkundera. Neurri txikiagoan, ekonomia garatuaren bilakaerak ere bultzatu zuen munduko hazkundera, eta azken hauen aldakuntza tasak txikiagoak izan baziren ere, garrantzitsuak izan ziren.

BPGren bilakaera

5. irudia

Urte arteko aldakuntza tasak



Iturria: NDF eta Eurostat.

2006ko urteko txostena

Ekonomia aurreratuen hazkundera indartsua izan zen berriro 2006. urtean. Hain zuzen ere, sei hamarrenetan gainditu zuten aurreko urteko aldakuntza tasa. Europako susperraldia azpimarratu behar da. Gorantz zihoan barne eskariak bultzatu zuen bertako hazkundera, espero zena baino sendoagoa baita, eta azken sei urteetako erritmo biziena lortu zuen. Estatubatuar ekonomiak azken urteetan izandako mailetan mantendu zuen bere gehikuntza tasa, kanpo defizitaren jaitsierari esker. Izan ere, esportazioen susperraldiak barne eskariaren moteltzea konpentsatu zuen. Azkenik, Asiako bizitasun apartak on egin zion Japoniari, herrialde horretako hazkundera batez ere esportazioen sendotasunean oinarritu zelako.

Garapen bidean dauden herrialdeen artean, Txina eta India berriro kokatu ziren lehenengo tokietan, beraien ekonomien hazkunde tasak eta merkataritzaren emaitzak oso altuak izan zirelako. Zehazkiago adierazita, Txinak lortu zuen %11,1eko gehikuntza tasak eragin handia izan zuen garapen bidean dauden herrialdeen sendotasunean, baina ez da bat ere baztergarria Indiaren hazkunde tasa ere (%9,7). Bi herrialde horiek alde batera utzita ere, garapen bidean dauden gainontzeko herrialdeek ere hazkunde tasa garrantzitsuak lortu zituzten eta kasu gehienetan %5aren inguruko igoerak jaso ziren.

Beste aldetik, munduan dagoen likidezia handiak eta petrolioaren bat-bateko garestitzeak interes tasen igoerarekin batera ez zuten inflazio tasa asko igoarazi, finantza merkatuetako bizitasuna lagunduz.

2007. urtean, zenbait arrisku agertu dira. Estatubatuar ekonomia hazkundera gutxitzeko aukera dago, hipoteken arloan sortu den krisiaren ondorioz (higiezinen merkatuetan okerragotze larria gerta daiteke); inflazioaren presioetatik ondorioztatzen diren arriskuak areagotu daitezke; finantza merkatuetako gorabeherak bizitu daitezke, interes tasen etengabeko igoerarengatik eta gehiegizko likideziarengatik; eta merkataritzako kontu korronteetan desoreka handiak bere horretan jarraitzea.

Hala eta guztiz ere, 2007. urterako egin diren aurreikuspenek munduko ekonomiaren hazkundera oso gutxi motelduko dela adierazten dute, berriro %5,0eko tasa gainditu dezakeelako. Garatutako herrialdeen batez besteko hazkundera %2,5aren ingurukoa izango dela espero da, 2006an lortutakoa baino ia puntu erdi bat gutxiago. Dena dela, aurreratutako ekonomien apaltze txiki horrek ez du galgatuko garapen bidean dauden herrialdeen gehikuntza tasa.

Analisis herrialdeka

AEBetan, aurreko urtean hasi zen moteltzeko joera areagotu zen, bertako jarduera tasa berriro gutxitu zelako. Hala ere, hazkunde tasa oraindik sendoa izan zen eta BPGren gehikuntza %2,9ra iritsi zen. Azpimarratzekoa da hazkundearen osaera, barne eskariaren eta kanpo saldoaren ekarpenen artean dagoen desoreka neurri batean zuzendu zelako. Hain zuzen ere, lehenengo aldiz 1995. urtetik, kanpo saldoa hamarren bakar bat kendu zion hazkundeari.

Horiek horrela izanda, ekonomiak aurrera egin zuen barne eskariaren sendotasunari esker, bereziki kontsumo pribatuaren indarrean oinarrituta. Agregatu horrek azken bi urteetan jasotako mailaren aldean bizitasun apur bat galdu bazuen ere, azken bost urteetako emaitzarik onenetarikoa erakutsi zuen berriro. Kontsumo publikoak, berriz, ekarpen txikia egin zuen eta bi hamarren bakarrik ekarri zizkion BPGren gehikuntzari, azken hamarkadan izan zuen joerarekin bat eginez. Azkenik, inbertsioa izan zen kaltetuena, egoitzen esparruan bizi zen atzerakada handiaren ondorioz, behera egin baitzuen eta 1991. urtetik inoiz jaso zuen emaitzarik okerrera lortu baitzuen. Alde positiboenean, esportazioak eta inportazioak kokatu ziren, moteltzeko joera saihestu zuten aldagai bakarrak izan zirelako eta aurreko urtean izan zuten hazkunde mailak gainditu zituztelako. Hala ere, hazkundeari egin zioten ekarpena ez zen iritsi positiboa izatera, baina azken urteetako txikiena izan zen.

Lan merkatuak ekonomiaren bilakaera onaren ondorioak bereganatu zituen eta langabezia tasa %4,5ean utzi zuen urte amaieran, 1999. urtetik lortu duen emaitzarik onena baita. Inflazioak ere, hobera egin zuen eta bi hamarrenetan gutxitu zuen aurreko datua, baina oraindik azken hamar urteetako tasarik altuenetakoa izan zen.

Japoniako ekonomiak tonua berreskuratu zuen eta %2,2 hazi, 2005. urteko tasa baino hiru hamarren gehiago. Beste urtebete batez, bertako ekonomiaren hazkunde ereduaren ez zen aldaketarik hauteman: ekonomiaren hazkundera kanpo arloan eta inbertsioaren sendotasunean oinarritzen da. Kontsumo pribatua moteldu zen berriro eta ez zen gai izan 2004an hasitako suspertzea sendotzeko. Gastu publikoaren ekarpena, berriz, askoz ere txikiagoa izan zen eta hamarren bakar batera mugatu zen. Seigarren urtez jarraian, gastu publikoak BPGren gehikuntzari egiten dion ekarpena gutxitu zen.

Kanpo arloak areagotu zuen ekoizpenaren hazkundeari egiten zion ekarpena, nazioartean zegoen automobilen eta osagai elektronikoen eskari sendoari esker. Ondasun horiek

2006ko urteko txostena

esportazioen erritmoa areagotu zuten eta inportazioen tasa bikoiztera iritsi ziren. 2006. urtean lortutako maila azken sei urteetan izandako emaitzarik onenetakoa izan bazen ere, hazkundearen osaera horrek zalantzak piztu zituen Japoniako ekonomiaren hedaldiak izan dezakeen iraunkortasunaz eta berriro utzi zuen agerian kontsumo sendo eta errotutako baten beharra, dagoeneko hamabost urtez gorabehera handiak nozitu dituen hazkunde eredu bati sendotasuna emateko. Alde positiboan inflazioa eta langabezia tasaren bilakaera kokatu ziren. Inflazioa konpondu gabeko arazoa izateari utzi zion, zazpi urteko deflazioa gainditu eta gero. Langabezia tasa, berriz, %4,1ean kokatu zen, 1998. urtetik aurrera inoiz lortu den emaitzarik onena baita.







Txinak hazkunde erritmo biziari eutsi zion eta azken hamabi urteetako emaitzarik handiena lortu zuen urte arteko aldakuntza tasa %11,1era igoaraziz. Gehikuntza tasa harrigarri hori deigarriagoa da kontuan hartzen bada Txinako agintariak ekonomiaren hazkundea kontrolatzeko ahaleginak egin zituztela. Izan ere, laugarren urtez jarraian, Asiako erraldoiaren hazkunde tasa bi zenbakikoa izan zen. Ekonomiaren bultzagile nagusiak inbertsioa, batez ere industria alorrekoa, eta esportazioen bultzada sendoa izan ziren. Langabezia tasa hirugarren urtez jarraian gutxitu zen eta %1,5ean kokatu, 2005. urtean zegoen tasa hiru hamarretan jaitsaraziz.

Europar Batasuna %3,0 hazi zen 2006. urtean eta bere jardueraren susperraldia sendotu zuen, 2002. urtean hasitako bizitasun txikiko etapa atzean utziz. Alemaniaren, Frantziaren eta Erresuma Batuaren susperraldiak eta Espainiako bilakaera onak eremu horretako bilakaera positiboa eragin zuten. Hazkunde garrantzitsu horren berrikuntza nagusia kontsumo pribatuaren eskutik iritsi zen, aurreko urteko motelaldiaren ondoren hazteko joerari eutsi baitzion berriro ere eta jardueraren bultzagile nagusietako bat izan zen. Inbertsioak ere paper azpimarragarria jokatu zuen ekoizpena sendotzeko helburuan. Egia da inbertsioaren urte arteko aldakuntza tasa kontsumoarena baino askoz ere handiagoa izan zela, baina jardueraren gehikuntzari eginiko ekarpena kontsumo pribatuarena baino zertxobait txikiagoa izan zen. Hala ere, 1998. urtetik egin duen ekarpenik handiena izan zen 2006. urtekoa. Kanpo arloak ere bat egin zuen joera horrekin eta ez zion hamarren bakar bat ere kendu hazkundeari, esportazioen bilakaera onari esker, azken sei urteetako mailarik altuenetako bat jaso zuelako, euroak gainontzeko dibisa nagusien aldean balio irabazi bazuen ere.

BPGren bilakaera zenbait herrialdetan

6. irudia

Urte arteko aldakuntza tasak



Iturria: NDF eta Eurostat.

2006ko urteko txostena

Hazkundearen osaera honek, zeinean barne eskariaren ekarpena handiagoa baita, kontsumo pribatua sendoagoa den eta kanpo arloak hazkunderari ekarpen positiboa egiten dion, Europako hedaldia erraztuko du datozen ekitaldietan.

Lan merkatuak ere nabaritu zuen ekonomiaren egoera ona eta laugarren urtez jarraian langabezia tasa murriztu zuen, %7,9ra arte, 2005ean izandako tasa zortzi hamarren beheratuz eta 2000. urtean serie hau sortu zenetik inoiz jaso den tasarik apalena bilduz. Azkenik, inflazioa egonkor mantendu zen %2,3an hirugarren urtez jarraian, Europako Banku Zentralaren helburutik oso hurbil.

Alemania lomotorak bere indarra berreskuratu zuen hainbat urtetan krisi ekonomikoa eta hazkunde txikiak jaso ondoren. 2006ko datuek frogatu zuten alemaniar ekonomiak oso urte ona bizi zuela, BPGren gehikuntza tasa azken sei urteetako handiena izan zelako, jardueraren hazkundera %2,9ra iritsita. Barne eskariaren hobekuntzak eta alemaniarrek kanpo arloan duten lehiakortasunak 2005ean izandako hazkundera bikoiztea ahalbidetu zuten. Futboleko munduko txapelketak eta 2007an BEZ zerga igoko zelako mehatxuak kontsumo pribatuaren gehikuntza eragin zuten. Lehenengo aldiz urteetan aldagai horrek puntu erditik gorako ekarpen positiboa egin zion hazkunderari. Inbertsioak, berriz, bere hazkundera sendotu zuen eta urte arteko aldakuntza tasa garrantzitsua jaso.

Ekonomiaren bizitasunak Alemaniako defizit publikoa %3aren azpitik kokatzea ahalbidetu zuen, lehenengo aldiz 2001. urtetik, Egonkortasunerako eta Hazkunderako Itunaren irizpide nagusia, bost urtez bertan behera egon ondoren, azkenean betez. Ekonomiaren susperraldia lan merkatuan ere hauteman zen eta langabezia tasa %8,4ra jaitsi zen, azken hiru urteetako emaitzarik onena baita. Beraz, amaitutzat jotzen dute aldi negargarri hura, zeinean une batzuetan langabeen kopurua bost milioi pertsonatik gorakoa izan baitzen. Azkenik, inflazioari dagokionez, prezioen igoerak ez ziren oso garrantzitsuak izan eta aurreko hiru urteetako mailaren inguruan mantendu ziren.

Frantziak atzean utzi zuen 2005eko atzeraldia eta %2,0 hazi zen, azken sei urteetako emaitzarik onena jaso, 2004ko hazkunde tasa kontuan hartzen ez bada. Ekonomiaren hobekuntza, beste urtebete batez, barne eskariaren eskutik iritsi zen, kanpo arloak, hazkunderari eginiko ekarpena hobetu beharrean, berriro zenbait hamarren kendu zizkiolako. Barne eskariaren osagaien artean, kontsumo pribatua eta inbertsioa izan ziren bultzagile nagusiak eta biak 2005ekoak baino hazkunde tasa txikiagoak izan zituzten arren, garrantzitsuak izan ziren. Esportazioen

gorakada ez zen nahiko izan inportazioen sendotasuna berdintzeko eta kanpo arloak ia puntu erdi bat kendu zion BPGren gehikuntzari. Dagoeneko bost urtez jarraian jardueraren hazkundera barne eskariaren sendotasunean bakarrik oinarritzen da.

Lan merkatuak ere frantziar ekonomiaren une gozoa islatu zuen eta bi hamarrenetan murriztu zuen aurreko langabezia tasa. Inflazioa, berriz, egonkor mantendu zen %1,9ko tasan, Alemaniarekin batera, Europako banku Zentralak prezioen egonkortasunerako ezarri duen helburua betez.

Erresuma Batuak ezustea eman zuen bere bizitasun sendoarekin, 2005eko atzeraldi garrantzitsuaren ondoren, zeinean hazkunde erritmoa ia erdira jaitsi baitzen. Horiek horrela, britainiar ekonomia %2,8 hazi zen, barne eskariaren bilakaera onak bultzatuta. Osagai horren barruan, kontsumo pribatua eta inbertsioa izan ziren dinamikoenak. Azpimarratzekoa da inbertsioaren gorakada handia, aurreko urteko moteltze garrantzitsuaren ondoren. Kanpo saldoak aurreko urtean lortu zuen ekarpen positiboak ez zuen jarraipenik izan eta kanpo eskariak ez zuen lagundu barne eskaria ekonomia bultzatzen. Are gehiago, berriro kendu zizkion zenbait hamarren BPGren gehikuntzari. Gauzak horrela, esportazioek maila nabarmena lortu bazuten ere, ez ziren nahiko altuak izan inportazioek izan zuten erritmo bizia berdintzeko.

Lan merkatuak bertan behera utzi zuen 1993. urtean, langabezia tasa %10,2an zegoen garaian, hasitako beheranzko joera eta gutxitu beharrean lau hamarren egin zuen gora. Inflazioa ere goranzko joera hartu zuen eta bi hamarren altuagoa izan zen, %2,3an kokatu, azken hamar urteetako mailarik gorena delarik.

Italiak antzeko joera erakutsi zuen. 2006. urtean BPGren gehikuntza tasa %1,9ra iritsi zen, 2005ean lortutakoaren aldean gorakada sendoa delarik. Datu hori 2005eko hazkunde hutsalaren parean aurrerakada garrantzitsua bada ere, goizegi da susperraldi sendoaz hitz egiteko, zeren eta azken sei urteetan ekonomia horren gehikuntzak eta uzkurdurak etengabeak izan direlako eta behin ere ez dira sustraitu. Horiek horrela, 2006. urtean bai barne eskariak bai kanpo eskariak ekarpenak egin zizkieten jardueraren hazkunderari, bereziki kontsumo pribatuak, inbertsioak eta esportazioek bultzatuta.

Lan merkatuak bilakaera positiboagoa erakutsi zuen eta bederatzi urtez jarraian langabezia tasak behera egin zuen, %6,8an kokatu arte. Gogoratu behar da 1996. urtean langabezia tasa

2006ko urteko txostena

%11,3an zegoela. Azkenik, inflazioak ere ekonomiaren abagunearen ontasuna islatu zuen eta %2,2an mantendu zen egonkor.

Espainiako ekonomia

2006. urtean, Espainiaren barne produktu gordina %3,9 hazi zen, 2000etik lortu zuen emaitzarik onena. Urtean zehar, Espainia G-7 taldeko herrialde guztiak baino gehiago hazi zen eta gaur egun munduko zortzigarren potentzia da, BPGren tamaina bilioi bat euroko zenbatekora hurbiltzen delarik.

Jardueraren hedatze bizia, 2004an eta 2005an ez bezala, bateragarria izan zen eskariaren osagaien nolabaiteko orekarekin. Izan ere, munduko ekonomiaren hazkunde indartsuak, Euroguneko jardueraren susperraldi finkatuak eta moneta baldintzak horren erosoak ez izateak Espainiako nazio eskaria moteltzera eraman zuten 2006. urtean, baina aldi berean kanpo eskari garbia hobetu zuten, hobekuntza hau tamaina handiagokoa izan zelarik.

Barne eskaria berriro izan zen ekonomiaren bultzagile nagusia, kontsumoak eta inbertsioak bultzatuta. Zehazkiago adierazita, familien kontsumoak hazkunde erritmo garrantzitsuari eutsi zion, azken urteetako emaitzekin bat eginez, baina zertxobait gutxiago hazita. Dena dela, familien aurrezki tasa berriro gutxitu zen. Etxebizitzan egindako inbertsioak hedatze sendoa jaso zuen eta ekipamendurako ondasunetan eginiko inbertsioak ere sendotasun nabarmena aurkeztu zuen, hamarkada honetako lehenengo urteetan nolabaiteko geldotasuna erakutsi bazuen ere.

Kanpo saldoaren hobekuntza eta BPGren hazkundeari eginiko kenketa txikiagoa esportazioen areagotzearen ondorio zuzena izan ziren, 2005. urteko atzeraldiaren ondoren suspertze garrantzitsua lortu zutelako. Hala eta guztiz ere, esportazioak ez ziren nahiko izan inportazioen sendotasuna konpentsatzeko, baina behintzat puntu bakar batera murriztu zuten ekoizpenari kentzen diotena, aurreko urteetan 1,7 puntu kentzen zizkioten bitartean.

ESTATUKO TAULA MAKROEKONOMIKOA

7. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2001	2002	2003	2004	2005	2006
Azken kontsumoko gastua	3,5	3,2	3,4	4,7	4,5	4,0
-Familien gastua kontsumoan	3,4	2,8	2,9	4,2	4,2	3,7
-Administrazioaren gastua kontsumoan	3,9	4,5	4,8	6,3	5,5	4,8
Kapital eraketa gordina	4,4	3,4	5,2	5,2	6,5	7,0
-Kapital finkoaren eraketa gordina	4,8	3,4	5,9	5,1	6,9	6,8
Nazio eskaria (*)	3,9	3,3	3,9	4,9	5,3	5,1
Esportazioak	4,2	2,0	3,7	4,2	2,6	5,1
Inportazioak	4,5	3,7	6,2	9,6	7,7	8,3
BPG	3,6	2,7	3,1	3,3	3,6	3,9
Nekazaritza eta arrantza	-2,0	0,4	-0,5	-2,3	-8,6	2,4
Energia	4,0	0,8	5,4	3,2	5,2	1,4
Industria	3,2	-0,1	1,2	0,6	1,0	2,9
Eraikuntza	8,6	6,3	4,4	5,1	5,6	5,0
Zerbitzuak	3,6	3,0	3,0	3,8	4,1	4,1
Produktuen gaineko zerga garbiak	3,2	4,3	6,6	4,4	6,1	3,5
Gogoratzekoak:						
-Kontsumo prezioen indizea	2,8	3,6	3,1	3,1	3,4	3,6
-Enplegua	3,2	2,3	2,4	2,7	3,2	3,2
-Administrazio publikoen defizita (BPGrena)	-0,5	-0,3	0,0	-0,2	1,1	1,8

(*) BPGren hazkundeari eginiko ekarpena.

Iturria: INE eta Ekonomia eta Ogasun Ministerioa.

Eskaintzaren aldetik, ekoizpen adar guztiek bizitasun garrantzitsua erakutsi zuten. Eraikuntza izan zen berriro hazkunde tasa altuena lortu zuen sektorea, baina erritmoa galtzen hasi zen, 2003an hasitako goranzko etapari amaiera ematen. Zerbitzuek egonkor eutsi zioten aurreko tasari eta goranzko ibilbideari segida eman zioten, dagoeneko bost urtez jarraian hazkunde gorakorra izan dutelako. Industriaren gehikuntza sendoa azpimarragarria izan zen, 2004. urtean sektoreak izan zuen uzkurdua garrantzitsuaren ondoren indarra berreskuratu duen seinale. Azkenik, lehen arloak amaiera eman zien 2003. urtean hasitako beherakadei eta hazkunde sendoa lortu zuen, aldakuntza tasa positiboetara itzuliz.

2006ko urteko txostena

Enpleguari dagokionez, ekonomiaren emaitza onak lan merkatura ere igaron ziren. Biztanleria Aktiboaren gaineko Inkestaren arabera, lehen aldiz gaintu da hogei milioi landunen kopurua eta langabezia Europako batez bestera hurbildu zen, %8,5ean kokatuta, hots, ia hogeita hamar urtetan izandako tasa apalenean. Azken hiru urteetan, Europar Batasuneko enplegu berriaren %40aren ingurua Espainiak sortu du, Frantziak, Alemaniak, Italiak eta Erresuma Batuak batera baino gehiago.

Enpleguaren maila, lanaldi osoko langile baliokidetan neurtuta, egonkor mantendu zen 2006. urtean eta mende hasierako hazkunde tasak berreskuratu zuen. Izan ere, bigarren urtez jarraian enpleguaren gehikuntza tasa %3,2 izan zen. Tasa horrek esan nahi du 550.000 lanpostu garbi sortu zirela, batez ere eraikuntzan, bosgarren urtez jarraian hazkunde bizkortua lortu zuelako, eta zerbitzuetan, bereziki merkaturatzen diren zerbitzuetan. Alderdi ez hain positibo batean, industria kokatu zen, 2005. urtean lortutako hazkundera sendotzeko behar beste bultzadarik ez baitzuen izan eta ez zuen lortu sektoreko langileen kopurua areagotzea.

Prezioen bilakaerari dagokionez, KPI indizeak %3,6 hazi zen 2006. urtean batez beste. Beraz, aurreko urteko datua bi hamarrenetan gaintu zuen. Tasa horrekin hamarkadaren lehenengo urteetako mailara itzuli da, prezioen indizea %3,5aren inguruan zegoenean. Aipatutako gehikuntza horren ondorioz, Eurogunearekiko inflazio tartea 1,4 puntura zabaldu zen, 1997tik inoizko handiena baita.

Arlo publikoari dagokionez, administrazio publikoek, bigarren urtez jarraian, superabitarekin amaitu zuten urtea. Superabit hori 2005ekoa baino %74,8 handiagoa izan zen eta 17.898 milioi eurora iritsi, hots, BPGren %1,83ra. Azpimarratu behar da Eurogune herrialdeen artean lauk bakarrik dutela superabita eta beraien artean Espainia da, Finlandiaren ondoren, tamaina handienekoa lortu duena.

2 EAE-KO EKONOMIAREN ANALISIA

2.1 Ekoizpen arloak

Sarrera

EAEko ekonomiak azken hamabi urteetan bilakaera bikaina erakutsi du. 2006. urtea ez zen salbuespena izan eta berarekin jarduera maila biziko etaparik luzeenetako bat lortu da. Epealdi osorako urte arteko aldakuntza tasa %4,0 izan zen bolumen kateatuko indizearen terminoetan eta %7,3 unean uneko terminoetan.

Hain zuzen ere, 2006. urtean zehar EAEko ekonomiaren barne produktu gordinak hazkunde garrantzitsua lortu zuen, %4,2an estimatu dena. Tasa hori azken sei urteetako altuena da eta aurreko ekitaldietan izandako goranzko zikloaren jarraipena da. Azpimarratzekoa da ekoizpen jardueraren hedaldia zertxobait areagotu zela aurreko urtean jasotako %4,0ko hazkunde eritmoaren aldean. Horiek horrela izanda, esan daiteke lehengaien garestitzea, nazioarteko krisiak eta banku zentralek ezarritako moneta politika murriztaileak ez direla oztopoa izan munduko ekonomia, oro har, eta EAEko ekonomia, zehazkiago, 2006. urtean aurrekoetan baino gehiago hazteko.

EKONOMIA ARLOEN ALDAGAI NAGUSIAK

8. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	BEG bolumen indizea		Enplegua		Ekoizkortasuna	
	2005	2006	2005	2006	2005	2006
Lehen arloa	-13,8	-9,8	-5,1	0,8	-8,7	-10,6
Industria	4,9	4,9	-0,6	-0,6	5,5	5,5
Eraikuntza	4,7	5,1	3,7	3,7	1,0	1,4
Zerbitzuak	3,5	3,8	3,5	3,3	0,0	0,5
Guztira	4,0	4,2	2,2	2,3	1,8	1,9

Iturria: Eustat.

2006ko urteko txostena

Eskaintzaren ikuspegitik, ekoizpenaren arlo guztiek, salbuespen bakarra lehen arloa delarik, hazkunde tasa positiboak aurkeztu zituzten 2006. urtean. Lehen arloak, berezkoak dituen gorabeherekin, %-9,8ko beherakada jaso zuen. Industriak, berriz, %4,9ko urte arteko aldakuntza tasa nabarmena eskuratu zuen, barne eskariaren bultzada sendoari esker eta esportazioen bilakaera positiboari esker. Eraikuntzari dagokionez, sektore horrek gehikuntza tasa garrantzitsu bat lortu zuen berriro, aurreko urteko tasa zertxobait gaindituz, urte arteko aldakuntza tasa %5,1ean geratu baitzen. Horiek horrela, badirudi 2006. urtea dela eraikuntzaren moteltzeari hasiera eman dion urtea, hiruhilabetekako kontabilitatearen arabera. Zerbitzuek, azkenik, EAEko ekonomian paper dinamizatzaile jokatu zuten berriro eta %3,8ko hazkunde batekin egonkor mantendu zen aurreko urteko emaitzaren aldean.

Lehen arloa

Lehen arloaren balio erantsi gordinak %-9,8 murriztu zuen bere urte arteko aldakuntza tasa 2006. urtean. Nekazaritza arloaren barruan, urtearen ezaugarri nagusiak ortuarien ekoizpenaren susperraldia 2005eko kanpaina txarraren ondoren, ardo berriaren ekoizpen txikiagoa 2005eko uzta okerragoaren ondorioz, patataren garestitze nabarmena, gari ekoizpenaren beherakada ereindako zelaia gutxiago izan zirelako nahiz eta hektarea bakoitzeko errendimendua areagotu zen, eta erremolatxaren merkatzea prezioaren zati bat ordainketa bakarrean sartzen delako.

LEHEN ARLOKO ADIERAZLE NAGUSIAK

9. TAULA

Urteko aldakuntza tasak

	BEG bolumen indizea			BEG uneko prezioetan		
	2004	2005	2006	2004	2005	2006
Nekazaritza eta arrantza	31,3	-13,8	-9,8	3,7	-5,1	-0,1

Iturria: Eustat.

Abeltzaintzari dagokionez, behi esnearen ekoizpena murriztu zen, esnetarako zein haragitarako erabiltzen diren behien kopurua gutxitu zen eta arrautzen zein behikiaren prezioak nabarmen

garestitu ziren. Azkenik, basogintza atalaren ezaugarri nagusia ‘radiata’ motako pinua mozteko baimenak areagotu izana zen.

Industria

EAEko industriaren balio erantsiak 2006. urtean %4,9ko urte arteko aldakuntza tasa jaso zuen. Tasa horrek agerian uzten du EAEko industriak 2002. urtean hasitako goranzko joerari eusten diola. Industriak 2006an erakutsi zuen portaera bikaina orokorra zen inguruko herrialde garatutako gehienetan. Industriaren hazkunde biziagoa eragin zuten oinarriak, alde batetik, EAEko esportazioak erosten dituzten ekonomietan inbertsioak areagotu izana, eta beste aldetik, EAEko bertako barne eskariaren bultzada izan ziren. Bi arrazoi horiengatik EAEn ekoiztutako ekipamendurako ondasunen inbertsioa, bereziki eta modu garrantzitsu batean, nabarmen gehitu zen.

INDUSTRIAREN BILAKAERA

10. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	Industriaren balio erantsia						
	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006
EB-27	4,7	0,8	-0,2	0,5	2,7	0,6	3,4
Eurogunea	5,0	1,4	-0,1	0,3	2,4	0,6	3,7
Alemania	6,3	1,1	-1,4	0,4	4,7	1,2	5,3
Frantzia	4,2	2,1	0,5	1,8	1,1	1,2	1,7
Erresuma Batua	1,9	-1,5	-2,0	-0,3	0,8	-2,0	0,0
Italia	2,1	-0,7	-0,8	-2,3	-0,8	-1,8	2,5
Espainia	4,2	3,3	0,0	1,8	1,0	1,6	2,6
EAE	8,5	2,5	1,1	1,2	2,9	4,9	4,9
AEB (*)	4,5	-3,4	0,0	1,1	2,5	3,2	3,9
Japonia (*)	5,2	-6,5	-1,3	3,3	5,3	1,5	4,5

(*)Industriaren ekoizpena.







Iturria: Eurostat, INE (Espainia), Eustat (EAE) eta Ekonomia eta Ogasun Ministerioa (AEB eta Japonia).

2006ko urteko txostena

Industriaren bilakaera alderatua

7. irudia

Urte arteko aldakuntza tasak




Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten eta Eurostaten datuetan oinarrituta.

EAEko industriaren balio erantsi gordinaren bilakaera urtean zehar moteltzeko joera arina erakutsi zuen hiruhilekoak aurrera joan ahala. Balio gorena 2006ko lehen hiruhilekoan eskuratu zuen eta hortik aurrera gehikuntza tasak gero eta txikiagoak izan ziren. Balio erantsiak eskaintako joera hori bat dator IPI indizearen ziklo-joera serietik eratortzen diren datuekin, adierazle honek ere aurreko aldietan baino bizitasun handiagoa erakutsi zuelako, inguruko ekonomietan ere gertatu zen bezala.

Industria ekoizpenaren ziklo bilakaera ondasunen helburu ekonomikoaren arabera 8. irudia

Ziklo-joera seriearen urteko tasa



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten eta Eurostaten datuetan oinarrituta.

2006ko urteko txostena

EAEko IPIren portaera oso ezberdina izan zen ondasunen helburu ekonomikoaren arabera aztertzen bada. Energiaren eta ekipamendurako ondasunen ekoizpenak hazkunde tasa garrantzitsuak lortu zituzten eta bitarteko ondasunek, berriz, susperraldi txiki bat izan zuten. Kontsumoko ondasunen ekoizpenak, ordea, gehikuntza tasa negatiboa izan zuen, aurreko urteetan izandakoei gehitzen zaiena.

EAE-KO IPI-REN BILAKAERA AZPISEKTOREKA

11. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak. Datu gordinak

	2003	2004	2005	2006
Metalezko eta ez metalezko mineralak	6,0	-11,7	-3,5	6,3
Janari industria	5,7	-0,6	-0,2	-4,8
Ehungintza eta jantzigintza	-1,2	-3,1	-10,2	-9,7
Larrugintza eta zapatagintza	-22,6	-14,0	-14,5	-18,9
Egurraren industria	1,0	0,1	-3,7	5,5
Papera, edizioa eta arte grafikoak	-3,5	1,9	5,9	-1,2
Petrolioaren fintzea	22,2	6,9	-5,8	2,3
Industria kimikoa	3,0	-0,4	0,4	4,2
Kautxua eta plastikoa	6,0	5,2	0,0	-0,7
Industria ez-metalikoa	-2,1	-10,4	-2,9	-1,4
Metalurgia eta metalezko artikuluak	1,1	2,2	1,5	5,3
Makineria	0,5	6,3	3,1	4,5
Material elektrikoa	-2,1	5,2	10,3	7,6
Garraio materiala	0,0	5,2	3,8	7,3
Bestelako manufakturgileak	-3,5	-6,8	-0,3	3,0
Energia elektrikoa gasa eta ura	11,2	20,7	11,1	6,7
Industria guztira	2,1	3,7	2,6	3,9

Iturria: Eustat.

EAEko industriaren adar bakoitzak izan duen portaera zehazkiago aztertuta, Eustatek IPI indizearen 16 jarduera azpiarloka argitaratutako datuek erakusten dute 2006. urtean ekoizpenaren gehikuntza handienak metalezko eta ez-metalezko mineraletan, material elektriko eta garraio materialeko ekoizpenean eta energia elektrikoa, gasa eta ura sortzeko adarrean gertatu zirela. Oro har, EAEko industriaren balio erantsiari ekarpen handiagoak egiten dituzten adarrek aurreko urtekoak baino emaitza hobetoak izan zituzten. Beste aldetik,

elikagaien industriak, ehungintza eta jantzigintzak, larrugintza eta zapatagintzak, eta industria ez-metalikoak jaitsierak izan zituzten berriro. Adar hauek izan zuten beherakada garrantzitsuak ez zion kalterik egin industria ekoizpenaren guztizkoari, adar horiek EAEko industriaren egituraren pisu txikia dutelako.

Eraikuntza

EAEko eraikuntzak jarduera erritmo biziari eutsi zion 2006. urtean zehar eta EAEko ekonomian sendotasun handieneko sektore gisa agertu zen berriro. Bere hazkundeak moteltzeko joera arina erakutsi zuen urteko bigarren seihilekoan, hiruhilabetekako kontabilitatearen arabera. Joera aldaketa hori bereziki interes tasen igoeraren eta etxebizitzaren balio irabazia txikiagoa izango den ustearen ondorioa da.

ERAIKUNTZA ARLOAREN ADIERAZLE NAGUSIAK				12. TAULA
Urte arteko aldakuntza tasak				
	2003	2004	2005	2006
BEG bolumenen indize kateatua	4,9	4,4	4,7	5,1
BEG uneko prezioak	16,9	10,0	9,4	10,0
Deflatorea	11,4	5,3	4,5	4,7
Enplegua	6,2	4,9	3,7	3,7
Ekoizkortasuna	-1,3	-0,5	1,0	1,4
Etxebizitzaren salerosketak	---	---	22,8	13,0
Eskaintako etxebizitzak	-4,4	1,6	6,0	12,5
Prezioa €/m ²	5,3	8,2	15,6	10,0
Eraikuntzaren indizea	5,9	6,6	8,2	8,0
- Eraikuntza	6,8	7,5	9,0	8,4
- Obra zibila	4,2	3,8	6,2	6,9

Iturria: Eustat, Etxebizitza Saila (Eusko Jaurlaritza) eta Etxebizitza Ministerioa.

Moteltzeko joera agerian gelditzen da eraikuntzaren jarduera neurtzen duten hainbat adierazletan. EAEn eta 2006. urtean saldutako etxebizitzari buruz Etxebizitza Ministerioak

2006ko urteko txostena

argitaratu dituen datuek erakusten dute %13 gehitu direla salmentak. Tasa hori garrantzitsua izan arren, aurreko urtekoa baino askoz ere txikiagoa da. Beste aldetik, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailak salmentan zein alokairuan eskainitako etxebizitzaren kopuruaz emandako datuek hazkunde sendoa izan zuten. Aurreko guztiak iradokitzen du eskaintza eskaria baino handiagoa dela eta, horren ondorioz, prezioak zuzenduko direla. Izan ere, etxebizitzaren prezioa, eurotan metro karratu bakoitzeko neurtuta, hasi da gutxiago hazten.

Eraikuntzaren atalak aztertuta, eraikinen arloak hazkunde tasa handiagoak jaso zituen, baina moteltzeko joera garbia erakutsiz. Aitzitik, obra zibilak zertxobait areagotu du bere erritmoa, etxebizitzaren eraikuntzaren papera bereganatuz.

Enpleguaren ikuspegitik, datuek baieztatzen dute eraikuntza izan zela berriro lanpostuak erritmo bizienean sortzen dituen EAEko ekonomia arloa. Sektore horrek lan esku handia behar du eta bere bilakaera motelduko balitz lan merkatuaren sendotasuna kaltetuta ater daiteke.

Laburbilduz, eraikuntzak hazkunde tasa garrantzitsuak jaso zituen bai ekoizpenean bai enpleguan, baina aspaldidanik iragartzen zen moteltzeko joera azkenean hasi dela egiaztatzen da. Badirudi eraikuntzaren ziklo dinamikoa amaitzen ari dela, nahiz eta oraingoz lurreratze hori oso leuna den.

Zerbitzuak

Zerbitzuen arloak Euskadin ohiko egonkortasunari eutsi zion eta hiru hamarren gehitu zuen 2005ean lortutako hazkunde erritmoa. Hori horrela izanda, 2006. urteko aldakuntza tasa %3,8ra iritsi zen. Azpisektoreak aztertuta, merkaturatzen diren zerbitzuek beren hazkundera areagotu zuten, merkaturatzen ez diren zerbitzuek moteltzeko joera garbia erakutsi zuten bitartean.

Merkatuan saltzen diren zerbitzuak aztertuta, ekonomia adierazleek hobekuntza garbia izan zuten 2006. urtean aurreko urteko emaitzaren aldean. Merkataritzari dagokionez, Eustatek argitaratzen duen barne merkataritzako indizeak 2005ekoak baino urte arteko gehikuntza tasa

handiagoak lortu zituen salmentetan, hala handizkako merkataritzan nola txikizkakoan. Handizkako merkataritzan, hazkunde handienak makineria eta ekipamendurako ondasunetan lortu ziren. Txikizkakoan, berriz, pertsonarentzako ekipamenduan jaso ziren emaitza onenak, elikagaien salmentak, beste urtebete batez, jaitsi ziren bitartean.

ZERBITZUEN ARLOAREN ADIERAZLE NAGUSIAK

13. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2003	2004	2005	2006
BEG bolumenen indize kateatua	3,3	3,3	3,5	3,8
BEG uneko prezioak	6,4	6,7	6,6	7,3
Deflatoarea	3,0	3,4	3,0	3,4
Enplegua	2,8	3,4	3,5	3,3
Itxurazko ekoizkortasuna	0,5	-0,1	0,0	0,5
Barne merkataritzaren indizea	---	3,0	0,3	3,5
Bidaiarien gualdiak	4,1	11,0	5,2	11,5
Batez besteko egonaldia (egunak)	1,87	1,88	1,90	1,92
Betetze maila	44,18	46,86	47,63	48,34

Iturria: Eustat.

Garraioaren jardueretan, EAEko aireportuek egoera ona izan zuten 2006an, hala bidaiarien trafikoan nola salgaienean, Hegazkineria Zibilerako Zuzendaritza Nagusiaren datuen arabera. Forondako aireportuak Estatuko hirugarren tokia bete zuen berriro salgaien trafikoan. Hala ere, azpimarratzekoa da bidaiarien trafikoan 2006. urtean izan zuen gehikuntza garrantzitsua. Urte horretan kostu txikiko enpresa bat kokatu zen Gasteizko aireportuan, autonomia erkidegoko hiriburua atzerriko turista askorentzat Euskadira sartzeko ate bihurtuz. Loiuko aireportua berriro izan zen penintsulako seigarrena bidaiarien trafikoaren sailkapenean, aurretik Madril,artzelona, Malaga, Alacant eta Valentzia daudelarik. Bestelako garraio motak ere, hala nola trenak eta metroak, bidaiarien kopuruak igo zituzten. Hain zuzen ere, Euskotren enpresaren erabiltzaileen kopurua %2,3 gehitu zen eta Bilboko metroarena %2,5.

EAEra etorritako turismoa dela eta, Eustatek egiten duen establezimendu turistiko hartzaileen inkestak emaitza bikainak estimatu zituen turismo jarduerarentzat 2006. urtean. Horiek horrela, arlo horretako adierazle batzuek, hala nola gualdien kopuruak, bidaiarien etorrerak,

2006ko urteko txostena

batez besteko egonaldienak eta betetze mailarenak, gehikuntza garrantzitsuak izan zituzten. Hain zuzen ere, batez besteko egonaldia eta betetze maila 1,92 egun eta %48,34 izan ziren hurrenez hurren 2006. urtean. Aldagai horiek goranzko joera erakusten dute 2003. urtetik. Gaualdietan eta bidaiarien etorreran hazkunde tasa garrantzitsuak estimatu ziren dela estatutik etorritako bidaiarien artean dela atzerritik iritsitakoaren artean.

Nazioarteko ikuspegi batetik, Euskadira etorri ziren turistak batez ere Frantziatik eta Erresuma Batutik iritsi ziren, baina jatorria dibertsifikatzeko joera hauteman da. Izan ere, gero eta pisu handiagoa ari dira hartzen Belgikatik eta Portugaletik etortzen direnak. 2006. urtean, 2005. urtearen aldean, EAEko turismoa zertxobait lagundu zuen kostu txikiko aire konpainiek garatutako jarduerak. Estatutik iristen diren bidaiariak batez ere Madriletik, Kataluniatik eta Euskaditik bertatik etorri dira. Laburbilduz, 2006. urtean EAEk pisua irabazi zuen Estatuan atzerritar zein espainiar turistak erakartzeko helburu gisa.

ZERBITZUEN BEG-REN BILAKAERA AZPISEKTOREKA. BOLUMENAREN INDIZE KATEATUA 14. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2003	2004	2005	2006
Zerbitzuak guztira	3,3	3,3	3,5	3,8
Merkatuko zerbitzuak	3,6	3,5	3,5	4,1
Merkatukoak ez diren zerbitzuak	1,7	2,0	3,4	2,0

Iturria: Eustat.

Lan merkatuaren bilakaera zerbitzuen arloan aztertzen bada, bertan sortutako enplegua %3,3 areagotu zen EAEn. Gizarte Segurantzako afiliazioaren datuen arabera, afiliatu gehien irabazi zituzten merkatuko zerbitzuen azpi-sektoreak higiezinaren jarduerak, komunikazioak, ikerketa eta garapeneko jarduerak, ostalaritza eta enpresaren bestelako jarduerak izan ziren. Hala ere, eta datu horiei begiratuta, zerbitzuetako adar gehienetan urte arteko hazkunde tasak lortu zirela esan daiteke.

Aipamen berezia merezi du salmentarako ez diren eta administrazio publikoek ematen dituzten zerbitzuek 2006. urtean izan zuten hazkunde motelagoa. Urte horretan, jarduera



horiek %2,0ko urte arteko tasa jaso zuten, aurreko urteko emaitzaren aldean 1,4 puntuko jaitsiera baita.

2.2 Eskaria

Sarrera

Eskariaren osagaien hazkundera

9. irudia



Iturria: Eustat.


Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomia jarduerak bere bizitasunari eutsi zion 2006. urtean, bereziki barne eskariaren sendotasunari esker. Barneko eskariaren bizkortzea kapital eraketa gordinaren bultzada indartsuan eta azken kontsumoaren maila nabarmenean oinarritu zen. Izan ere, kontsumoa, oro har, hamarren bat gehiago hazi zen, administrazio publikoetako kontsumoa eta familiaena, hurrenez hurren, %2,8 eta %4,2 areagotu zirelako. Hala eta guztiz ere, 2006. urtean, hazkunde handiena lortu zuen osagaia kapital eraketa gordina izan zen,

2006ko urteko txostena

%6,0ko gehikuntza tasa lortu zuelako, aurreko urteko tasara iristeko hamarren bat falta zitzaiola.

Barneko eskariaren eta kanpoko eskariaren ekarpenak

10. irudia



Iturria: Eustat.

Gastua azken kontsumoan

Kontsumo pribatua %4,2 gehitu zen 2006. urtean aurreko ekitaldiaren emaitzaren aldean. Familiek hainbat arrazoi izan zituzten konfiantza indizeak altu mantentzeko. Izan ere, familien zorpetze maila handia lan merkatuaren bilakaera onak konpentsatzen du. Bestetik, langabezia tasa oso apal kokatu zen eta enpleguak bizkor hazten jarraitu zuen. Hala ere, aurreko urteko hazkunde tasari hamarren bat gehitu bazion ere, EAEko familien kontsumoak moteltzeko joera garbia erakutsi zuen hiruhilabeteak aurrera zihoazen heinean.

ERRENTEN ADIERAZLEEN BILAKAERA**15. TAULA**

Urte arteko aldakuntza tasak

	2002	2003	2004	2005	2006
Soldatapekoen ordainketa	6,1	6,1	7,8	6,8	---
Urtean indarrean dagoen soldata igoera	3,9	4,4	4,0	4,5	4,4
Enplegua	1,9	2,2	2,5	2,1	2,3
Pentsioen kopurua (*)	0,8	0,8	1,1	1,9	3,4
Batez besteko pentsioa (*)	4,4	6,0	6,1	5,3	4,4
PFEZren diru bilketa	4,7	5,1	1,1	11,5	10,3
Banku arteko interes tasa (urte baterako euriborra)(**)	3,5	2,3	2,3	2,3	3,4
KPI	3,7	2,8	3,0	3,3	3,4

(*) Hilabeteko lehen eguneko datuen arabera kalkulaturako urteko batez besteak.

(**) Hilabeteko batez besteekin osaturako urteko batez besteak.

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten, Lan Harremanen Kontseiluaren, INEren, Lan eta Gizarte Gaien Ministerioaren eta Espainiako Bankuaren datuetan oinarrituta.

Eustatek argitaratzen dituen merkataritzako adierazleen bilakaera aztertuta, hazkunde tasa positiboak ikusten dira 2006. urterako. Hedatzeko erritmo sendo horrek frogatu zuen EAEko familien azken kontsumoa ondo dagoela eta ekonomiaren bilakaeraz duten konfiantza oso baikorra dela. Ondasun iraunkorreko kontsumoari dagokionez, turismoen matrikulazioak aldakuntza tasa negatiboa izan zuen, baina aurreko urtean jasotakoa baino tamaina txikiagokoa izan zen.

KONTSUMO EFEKTIBOAREN ADIERAZLEEN BILAKAERA**16. TAULA**

Urte arteko aldakuntza tasak

	2002	2003	2004	2005	2006
IPI kontsumo ondasunak. EAE	2,8	-0,6	-0,5	-0,2	-1,5
IPI kontsumo ondasunak. Estatua	2,3	0,5	0,0	0,2	2,1
Automobilien matrikulazioa	-10,3	2,6	3,9	-4,4	-2,8
Barne merkataritzaren indizea (prezio finkoak)	4,6	1,9	3,0	0,3	3,6
Txikizkako merkataritza (prezio finkoak)	5,6	2,8	4,3	1,6	2,8

Iturria: Eustat, INE eta Trafiko Zuzendaritza Nagusia.

2006ko urteko txostena

Espainiako Bankuaren datuek zehazten dutenez, banku sistemak (bankuek, aurrezki kutxek eta kreditu kooperatibek) emandako kreditua %16,6 areagotu zen 2006. urtean. Hazkunde hori 2005. urtean jasotakoa baino zertxobait txikiagoa izan zen, baina emandako kreditua oso bizi hazi den urte sorta luze bati gehitzen zaio, finantza merkatuan dauden interes tasa apalek lagunduta.

Azken kontsumoaren hazkundera hamarren bat areagotu zen eta %3,9an kokatu. Hazkunde hori EAEko familien kontsumoak erakutsi zuen sendotasunari eta egonkortasunari esker gertatu zen, baina baita administrazio publikoen kontsumoari esker ere, 2006an %2,8 hazi baitzen, aurreko urteko emaitza zertxobait gaindituz.

Kapital eraketa gordina

Kapital eraketa gordinak aurreko urteko hazkunde tasa zertxobait moteldu zuen eta urteko batez bestean %6,0ko tasa garrantzitsua jaso. Aurreko urteetan bezala, inbertsioa izan zen EAEko barne eskariaren osagairik dinamikoena. Azpimarratzekoa izan zen ekoizteko inbertsioak, hau da, barne eskaintzaren ahalmena gehitzera zuzendutako inbertsioak, 2006an erakutsi zuen erritmoa. Finantzaziorako baldintza onak, enpresen soberakinen igoera, zikloaren hobekuntza Europan eta industria arloaren hazkunde bizia, bereziki ekipamendurako ondasunen azpiatalean, dira hedatze sakon horren arrazoiak.

Kapital eraketa gordinaren bizitasuna eskura dauden adierazle askoren bilakaeran ikus daiteke. Ekipamendurako ondasunen osagaien, bertan ekoiztako ekipamendurako ondasunen portaera hedakorrak baieztatzen du. Ekipamendurako ondasunen inportazioak, berriz, tasa apalagoa baina positiboa jaso zuen. Inbertsioaren beste adierazle batek, zamaketarako ibilgailuen matrikulazioak, hazkunde tasa negatiboa izan zuen, %-5,4koa, neurri batean aurreko urteko emaitza apartarekin alderatzen direlako.

KAPITAL ERAKETA GORDINAREN ETA BERE ADIERAZLEEN BILAKAERA**17. TAULA**

Urte arteko aldakuntza tasak

	2002	2003	2004	2005	2006
Kapital eraketa gordina (bolumenaren indize kateatua)	5,0	5,1	7,5	6,1	6,0
IPI ekipamendurako ondasunak:	-4,4	1,4	4,6	6,2	8,4
- IPI garraio materiala	4,7	0,0	5,2	3,8	7,3
- IPI makineria	-4,4	0,5	6,3	3,2	4,5
Ekipamendurako ondasunen inportazioak	0,8	-3,8	18,2	3,4	2,8
Zamaketarako ibilgailuen matrikulazioa	-10,2	9,5	14,9	12,1	-5,4

Iturria: Eustat eta Trafiko Zuzendaritza Nagusia.

Kanpo saldoa eta lehiakortasuna

2006. urtean, ekonomiak eta munduko merkataritzak tamaina handiko gorakada izan zuten. Mundu osoan zegoen egoera makroekonomiko sendoak testuinguru egokia sortu zuen nazioarteko merkataritza areagotzeko. Hain zuzen ere, munduko merkataritza %9,2 areagotu zen, hots, aurreko urtean baino 1,7 puntu gehiago, azken sei urteetako emaitzarik onenetariko bat lortuz.

Ekonomiaren jarduera biziagoa izan zen munduko merkataritzaren hedatze sendoaren bultzagile nagusia 2006. urtean. Munduko Merkataritza Erakundeak (MME) egin dituen lehenengo estimazioen arabera, salgaien esportazio nominalak %15,2 emendatu ziren, hots, 2005ean baino puntu eta erdi luze bat gehiago. Beste gehikuntza honi esker, salgaien munduko merkataritzak bizi duen hedatze fase luzeenetarikoak jarraipena izan du, lau urtez jarraian %13tik gorako gehikuntza tasak kateatu dituelako.

Beste urtebete batez, esportazioen hazkunde sendoena erregaiek eta meatzaritzako ekoizkinek esportazioen zati nagusia betetzen duten herrialdeetan gauzatu zen. Eremu horien artean, Ekialde Ertaina gailentzen da, nahiz eta egoera politikoaren bilakaerak eta petrolioaren merkatuarenak nabarmen baldintzatu zuten, eta baita Afrika ere, 1990. urtetik inoizko emaitzarik gorena jaso zuelako.

2006ko urteko txostena

SALGAIEN ESPORTAZIOAK HERRIALDEKA SAILKATUTA

18. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasa unean uneko prezioetan

	2001	2002	2003	2004	2005	2006(*)
Guztira	-4,2	4,9	16,8	21,5	13,6	15,2
Europar Batasuna	0,6	6,8	19,3	19,4	8,0	12,4
Frantzia	-1,3	2,6	18,2	15,3	2,5	5,8
Alemania	3,6	7,7	22,0	21,1	6,7	14,6
Erresuma Batua	-4,5	2,7	9,1	13,7	10,6	15,3
Italia	1,7	4,1	17,6	18,2	5,5	9,8
Herbehereak	-1,0	5,7	21,3	20,7	13,7	13,7
Portugal	-1,1	7,5	22,6	12,7	6,6	13,4
Espainia	1,2	7,7	24,2	17,0	5,5	7,0
AEB	-6,8	-4,9	4,6	12,9	10,7	14,5
Afrika	-7,2	2,8	24,9	30,5	29,7	20,9
Asia	-8,9	8,0	18,3	24,2	15,2	16,9
Txina	6,8	22,4	34,6	35,4	28,4	27,2
Japonia	-15,8	3,3	13,2	19,9	5,2	8,8
India	2,3	13,6	19,7	29,6	30,2	20,8
Ekialde Ertaina	-10,5	3,5	21,9	32,6	34,7	19,2

(*)Aurrerapena.

Iturria: Munduko Merkataritza Erakundea.

Asian, esportazio nominalen gorakadarik handiena Txinan gertatu zen berriro. Bertako herrialdearen gehikuntza tasa aurreko urtekoa baino zertxobait apalagoa izan bazen ere, 2002. urtean hasi zuen hazkunde ibilbide bikainari segida ematea ahalbidetu zuen. Izan ere, hazkunde garrantzitsu horri esker, Txina bigarren tokian jarri zen munduko esportatzaile nagusien artean, AEBen emaitzak gaindituz. Indiak antzeko joera erakutsi zuen, baina zertxobait apalagoa eta Japoniak bere ibilbidea luzatu zuen esportazioak ia %9 areagotuz. Datu hori nolabaiteko susperraldia da 2005. urtean izandako ahulaldiaren ondoren, baina ez zen iritsi mende hasierako mailetara.

Europar Batasunen salgaien esportazioak gainontzeko eremuetan baino gutxiago hazi baziren ere, erakunde horren partaidetza munduko esportazioen guztizkoan oso garrantzitsua izan zen berriro, esportazio guztietatik %42 europarra zirelako.

Hedaldi orokorreko testuinguru horretan, EAEko ekonomiak 2002. urtean hasitako goranzko bilakaerarekin jarraitu zuen eta %4,2ko gehikuntza tasa jaso, azken sei urteetako emaitzarik onena baita. Halaber, 2006ko hazkundera aurreko ekitaldietakoa baino orekatuagoa izan zen, barne produktu gordinari eginiko ekarpen negatiboa txikiagoa izan zelako. Hain zuzen ere, kanpo arloak BPGri 2006an egindako kenketa 2001. urtetik aurrera izandako ekarpen negatibo txikiena izan zen.

Emaitzen hobekuntza Europar Batasuneko merkatuetako bilakaeraren ondorioa izan zen, herrialde horiek EAEko ekoizkinen bezero nagusiak baitira. Eremu horretara esportatutakoa %13,8 gehitu zen, 2000. urtetik aurrera lortutako tasarik altuena delarik.

ONDASUNEN SALEROSKETA ATZERRIAREKIN

19. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	Mila euro				Tonak			
	Esportazioak		Inportazioak		Esportazioak		Inportazioak	
	Guztira	Ez energ.	Guztira	Ez energ.	Guztira	Ez energ.	Guztira	Ez energ.
1994	30,3	32,8	15,8	32,9	2,4	12,2	-20,5	11,7
1995	11,4	13,4	17,4	27,9	-12,4	-2,3	-12,5	18,1
1996	14,0	13,7	0,6	-3,2	7,9	7,5	-3,8	-9,9
1997	31,7	32,4	10,4	12,2	11,1	13,0	3,8	22,0
1998	5,0	5,3	8,1	11,7	5,2	-5,0	15,5	5,4
1999	2,0	2,2	8,6	6,5	-7,3	5,0	-3,4	1,5
2000	17,7	15,3	37,1	21,0	7,7	12,9	22,3	11,8
2001	-2,3	-1,8	-3,0	1,5	-6,1	-5,1	-5,3	2,3
2002	0,3	2,0	1,5	1,2	-4,3	5,8	4,5	-3,6
2003	1,3	0,1	3,2	2,6	13,5	5,0	5,7	7,0
2004	14,6	13,5	19,8	15,6	9,6	1,6	11,0	5,3
2005	5,8	5,4	15,6	4,4	-8,7	-3,7	1,8	-7,6
2006(*)	15,5	12,8	18,0	11,5	2,0	-9,4	7,3	0,0







(*) Behin-behineko datuak.
Iturria: Eustat.

2006ko urteko txostena

Ondasunen esportazioak

11. irudia

Urte arteko aldakuntza tasak



Iturria: Eustat.

Zehazkiago adierazita, atzerrian saldutako esportazioak guztira eta termino nominaletan %15,5 areagotu ziren, 16.153,8 milioi euroko zenbatekora iritsiz. Kopuru horrek ia hamar puntutan gainditzen du 2005. urtean jasotako gehikuntza tasa. Inportazioak, berriz, 17.156,5 milioi euroko baliora iritsi ziren, 2005eko datua ia puntu eta erditan gaindituz. Aldakuntza horien konbinaketa egiten, atzerriarekiko saldoa guztira defizitarioa izan zela ondorioztatzen da, 642 milioi eurotik gorakoa. Beraz, bigarren urtez jarraian atzerriarekiko saldoa negatiboa izan zen, hamaika urtez jarraian superabitak lortu ondoren. Are gehiago, urte horietako superabitak 1.000 milioi eurotik gorakoak izan ziren gehienetan.

Analisia energiakoak ez diren ekoizketan fokatzen bada eta petrolioaren garestitzeak merkataritzan izan zuen eragina baztertzen bada, antzeko joera hautematen da, baina aldakuntza tasak ez dira horren handiak. Hau da, hala energiaren bestelako esportazioak nola inportazioak nabarmen areagotu ziren, baina ez ziren iritsi guztizkoek lortu zituzten tasetara. Hain zuzen ere, energiakoak ez diren esportazioak %12,8 gehitu ziren eta inportazioak, berriz, %11,5. Bi kasuetan emaitza horiek 2005. urtean jasotakoak baino altuagoak izan ziren, baina ez ziren iritsi 2004. urteko mailetara. Hala eta guztiz ere, eta salbuespena 2004. urtean zehar izandako emaitza onak direlarik, 2000. urtetik lortutako emaitzarik onenetakoak dira.







Azkenik, analisia erositako eta saldutako unitateetan egiten bada, goranzko joera oso nabarmena izan zen bai esportazioen guztizkoan bai inportazioenetan, 2005. urtean nozitutako beherakada garrantzitsua gaindituz, baina 2004ko datuetara iritsi gabe. Energiako datuak albo batean utzita, esportazioen emaitza ez zen bat ere ona eta berriro egin zuen behera. Neurri batean, beherakada hori lehengaien garestitzearen ondorioa izan zen. Energiaren bestelako inportazioek, berriz, gehikuntza hutsala eskuratu zuten arren, tasa positiboetan kokatzea lortu zuten.

EAEko ingurune ekonomikoa osatzen duten herrialde nagusietako barne eskarien bilakaera sendoak, Europako bazkide eta bezero nagusien kasuan 2005ean lortutako emaitzak baino are handiagoak izan baitziren 2006koak, agerian uzten du ekonomiak bizi duen une gozoa. Ontasun horren ondorioz, beraien inportazioek gorakada garrantzitsuak izan zituzten eta, kasu gehienetan, lortutako tasak azken bost urteetako handienak izan ziren.

Ondasunen inportazioak

12. irudia

Urte arteko aldakuntza tasak




Iturria: Ekonomia eta Ogasun Ministerioa.

EAEk jakin zuen eskarien gorakada horretaz baliatzen eta herrialde horietan egindako salmentak areagotu zituen, baita 2005. urtean merkatu kuota galdu zuen herrialdeetan ere. Zehazkiago adierazita, Alemaniara bidalitako esportazioek gora egin zuten aurreko urteko beherakadaren ondoren eta %21,4 hazi ziren. Italian edo AEBetan EAEko produktuen salmenta ona izan zen berriro eta azken urteetako kuotei eutsi zioten eta baita areagotu ere, herrialde horietan saldutakoaren hazkundera beraien inportazio orokorra baino altuagoa izan zelako. Frantzian eta Erresuma Batuan esportazioen bilakaera ez zen horren aparta izan, baina gehikuntza tasa positiboak lortu ziren beraietan ere.

Emaitza horiekin bat eginez, EAEko enpresariak eskari zorroaren bilakaeraz adierazi dituzten iritziek 2000. urtetik aurrera jasotako emaitzarik baikorra erakutsi zuten. 2006. urtea hazkunde tasa negatibo batekin amaitu bazen ere, urte hartako bigarren seihilekoan eta 2007ko lehen hilabeteetan goranzko joera positiboa aurkeztu dute. Horiek horrela izanda, 2004an hasi zen hobetzeko joerari jarraipena eman zaio, salmentak Estatuan eta atzerrian hobetuko diren seinale.

Eskari zorroaren bilakaera **13. irudia**

Enpresarien erantzunen saldo garbia (muturretako ehunekoen arteko aldea)



Iturria: Industria, Turismo eta Merkataritza Ministerioa.

2006ko urteko txostena

Esportazioek 2006an izan zuten bizkortzea nahiko orokorra izan zen ekoizkinen arabera. Izan ere, azpimarratzekoa da meatzetako eta energiako ekoizkinen bilakaera, hazkunde aparta izan zutelako eta laugarren urtez jarraian gehikuntza tasa garrantzitsuak lortu zituztelako, hamarkadaren hasieran izandako atzerakadaren ondoren. Antzeko joera erakutsi zuen kautxua eta plastikoa biltzen dituen atalak, baina gorakadak zertxobait apalagoak izan ziren. Ondoren, metal arruntak eta beren manufakturak nabarmendu ziren, bilakaera positiboa eta goranzkoa erakutsi zutelako. Aurrekoenak bezain deigarria ez bazen ere, aipatu behar da ekipamendurako ondasunen bilakaera ere, 2005. urtean nozitu zuten atzerakada gainditzea lortu zutelako eta hazkunde tasa garrantzitsuak berreskuratu zituztelako. Hobekuntza nabarmen hori batez ere garraio materialaren eskutik iritsi zen, zehazkiago adierazita, automobilen susperraldiak eragin zuen gorakada, %14 baino gehiago areagotu zelako. Txanponaren ifrentzuan, arlo kimikoak beherakada izan zuen bere bilakaeran. Badirudi atal horrek zailtasunak dituela joera positiboa berreskuratzeko eta 2004an zein 2005ean goranzko bilakaera erakutsi bazuen ere, 2006an berriro egin zuen behera, 2003ko tasaren azpian geratuz.

ONDASUNEN ESPORTAZIOAK ATZERIAN. ARANTZEL TALDEKA

20. TAULA

	Milioi €	Urte arteko aldakuntza tasak					
		2006	2001	2002	2003	2004	2005
Guztira	16.513,8	-2,3	0,3	1,3	14,6	5,8	15,5
Ez-energetikoak	15.130,5	-1,8	2,0	0,1	13,5	5,4	12,8
Nekazaritzakoak	520,7	11,5	-0,7	4,5	0,7	-0,1	7,3
Energia ekoizkinak	1.383,3	-9,0	-28,9	31,3	35,5	12,2	56,9
Kimikoak	420,6	-10,2	9,9	-0,2	6,0	20,1	-1,2
Kautxua eta plastikoa	1.306,4	-1,1	-2,9	0,2	3,8	21,9	34,0
Papera	448,7	10,4	1,8	-1,2	0,9	4,0	4,7
Metalak eta manufakturak	4.282,6	-2,5	1,0	-0,7	18,7	13,1	16,3
Ekipamendu ondasunak	7.197,1	-4,7	1,9	0,5	18,2	-0,3	9,5
- Makinak eta tresnak	3.410,8	7,7	1,0	3,6	0,8	5,7	8,9
- Garraio materiala	3.786,4	-15,1	2,9	-2,7	37,6	-5,2	10,1
Bestelako manufakturak	805,5	10,3	8,5	-0,7	-6,4	-0,6	12,5
Sailkatu gabeak	148,9	20,6	10,6	-6,8	-15,7	31,4	13,7

(*) Behin-behineko datuak.
Iturria: Eustat.

Inportazioen atalean antzeko ibilbidea gertatu zen. Meatzetako eta energiako ekoizkinak nabarmendu ziren, neurri batean lehengaien etengabeko garestitzeak lagunduta. Ondoren, metal arruntak eta beren manufakturak agertu ziren, industriak eta eraikuntzak izan zuten bilakaera onaren ondorioz. Kautxua eta plastikoa izeneko atalak ere bilakaera ona erakutsi zuen inportazioei dagokienez eta azken bost urteetako gehikuntza tasarik handiena jaso zuen. Azkenik, ekipamendurako ondasunek oro har hazkunde tasa positiboa izan zuten, baina 2005. urtean hasitako moteltzea areagotu zen 2006an. Garraiorako materialen inportazioak izan zuten jaitsierak adar osoaren emaitza baldintzatu zuen. Aitzitik, makinak eta tresnak biltzen dituen atalak emaitza onak lortu zituen eta adar horretan ohikoagoak diren mailetara hurbiltzea lortu zuen.

ONDASUNEN INPORTAZIOAK ATZERRITIK. ARANTZEL TALDEKA

21. TAULA

	Miloi €	Urte arteko aldakuntza tasak					
	2006	2001	2002	2003	2004	2005	2006
Guztira	17.156,5	-3,0	1,5	3,2	19,8	15,6	18,0
Ez-energetikoak	11.189,9	1,5	1,2	2,6	15,6	4,4	11,5
Nekazaritzakoak	804,0	3,6	25,6	0,7	-12,3	0,8	-1,1
Energia ekoizkinak	5.966,6	-17,5	3,0	5,3	35,8	52,1	32,7
Kimikoak	494,8	5,4	-1,8	9,6	9,1	1,3	9,9
Kautxua eta plastikoa	745,0	-4,7	6,8	6,1	9,7	6,5	15,8
Papera	366,3	-9,4	15,4	-5,9	15,0	2,5	10,7
Metalak eta manufakturak	4.209,1	3,9	-3,0	9,9	32,6	6,2	24,7
Ekipamendu ondasunak	3.529,5	-5,0	0,8	-3,8	18,2	3,4	2,8
- Makinak eta tresnak	2.370,9	13,7	-10,1	0,8	10,0	2,7	8,1
- Garraio materiala	1.158,6	-35,1	31,7	-12,6	36,4	4,6	-6,6
Bestelako manufakturak	1.022,8	3,8	4,9	3,6	2,4	6,8	-48,3
Sailkatu gabeak	18,5	-11,8	-18,3	23,1	0,5	-9,1	-54,5

(*) Behin-behineko datuak.
Iturria: Eustat.

Beraz, ez da harritzekoa EAEko ekoizpen egitura, beste urtebete batez, teknologia ertaineko ondasunetan fokatuta egotea. Teknologia ertain-altukoaren produktuen artean makineria eta material elektrikoa, motorreko ibilgailuak eta farmaziakoak ez diren ekoizkin kimikoak

2006ko urteko txostena



aurkitzen dira, eta ertain-baxukotzat jotzen dira, metalurgiako produktuak eta kautxua eta plastikoa.

Ez dira nahastu behar maila teknologikoa herrialde batek berrikuntzak egiteko duen ahalmenarekin. EAeko enpresek goi mailako teknologiakotzat jotzen diren sektoreetako produktu askorik ez ekoizteak ez du adierazi nahi bertan egindako produktuak kalitate txikikoak edo berrikuntza gutxikoak direnik. EAeko enpresa ekipamendurako ondasunetan eta burdinaren eta bestelako metalen galdaketaz manufakturatutako ekoizkintan espezializatu ohi da (teknologia ertain altukoak eta baxukoak), farmazietarako produktuetan, aireontzietan edo zehaztasun handiko ekipoetan, hots, goi teknologiakotzat jotzen diren sektoretan, asko garatu gabe.

Industria ekoizkintzen salerosketen bilakaera teknologia edukiaren arabera. 2006

14. irudia

Ehunekoak



Iturria: Eustat.

Energiaz bestelako esportazioen helburuari dagokionez, lortutako emaitzak azken urteetako antzekoak izan ziren, ekonomia eremu nagusi guztiek gorakada nabarmenak eskuratu zituztelako. Hain zuzen ere, 2006. urtean lortutako hazkundeak hurbilago zeuden 2004an izan zituztenetatik, zeinean aurreko urtearekiko gehikuntza areagotu baitzen, 2005ean jasotakoetatik baino. Zehazkiago adierazita, ELGE erakunde herrialdeetara bidalitako esportazioak %12,9 gehitu ziren, 2002. urtetik jaso den tasarik gorena baita. Hazkunde garrantzitsu hori Europar

2006ko urteko txostena

Batasunak izandako igoera nabarmenaren ondorioa izan zen. Bereziki azpimarragarria da Italiaren portaera ona eta baita Alemaniarena ere, 2005eko beherakada sakonaren ondoren EAeko ekoizkinen bezero nagusietakoa da berriro. Europar Batasuneko kide berriek ere goranzko joera hori erakutsi zuten eta, hirugarren urtez jarraian, merkatu garrantzitsua izan ziren EAeko ekoizkinen salmentarako. Hala ere, herrialde horien pisua EAeko esportazioen guztizkoan oso txikia da oraindik.

ELGE erakundeko gainontzeko herrialdeetan egoera ezberdinak ikusten dira. Alde batetik, AEBetara bidalitako energiaren bestelako esportazioak nabarmen areagotu eta sendotu ziren. Beste aldetik, Japoniako merkatuan saldutakoa berriro gutxitu zen. Hain zuzen ere, hamarkada hau hasi zenetik, 2004. urtean bakarrik lortu ziren tasa positiboak eta hori automobilen salmenta zehatz bategatik gertatu zen.

EAE-K ATZERRIAN SALDUTAKO ONDASUN EZ-ENERGETIKOEN HELBURUA

22. TAULA

	Miloi €	Urte arteko aldakuntza tasak					
	2006 (*)	2001	2002	2003	2004	2005	2006(*)
Guztira	15.130,5	-1,8	2,0	0,1	13,5	5,4	12,8
ELGE	12.605,3	-3,4	2,6	1,6	11,8	5,6	12,9
Eurogunea	8.912,2	-1,1	2,3	2,6	10,0	5,2	14,3
Europako kide berriak	615,7	13,3	3,6	-0,1	11,2	18,3	26,3
Europar Batasuna	10.963,8	0,4	2,6	2,3	10,9	5,3	13,8
Frantzia	2.915,1	5,8	2,8	1,0	11,6	3,7	7,7
Alemania	2.486,8	-8,5	2,7	2,2	17,6	-0,8	21,6
Erresuma Batua	1.088,1	8,3	9,9	-0,6	20,1	0,9	1,3
Italia	1.380,8	0,8	-0,4	3,8	0,0	23,5	23,0
ELGEko besteak (1)	2.258,1	-16,6	3,0	-2,4	16,4	10,0	11,7
AEB	642,7	-4,4	-3,9	14,6	-17,6	3,4	16,5
ELGETik kanpokoak	2.542,3	6,4	-1,2	-7,2	22,8	4,5	12,5
Errusia	95,6	18,2	-20,5	1,8	84,4	-0,3	53,2
Txina	245,6	97,0	-20,4	67,4	28,1	17,7	26,6
Brasil	227,2	24,8	-36,6	-30,2	0,5	15,3	-3,0
Munduko besteak	1.955,8	-2,2	13,2	-6,8	24,1	2,1	11,5

(*) Behin-behineko datuak (1) ELGEkoak EB-15ak izan ezik.
Iturria: Eustat.

2006ko urteko txostena

ELGE erakundean parte hartzen ez duten herrialdeen artean, Errusia azpimarratu behar da, hara zuzendutako esportazioak oso sendo areagotu zirelako, 2004an lortutako emaitzen haritik. Hala ere, herrialde horrek ez du joera egonkor eta gorakor bat erakusten. Txinak goranzko joerari eutsi zion eta oso hazkunde sendoa lortu. Brasil, ordea, alde negatiboan kokatu zen eta gutxiago inportatu zuen EAEtik, 2004ko hobekuntza bertan behera utziz.

EAE-K ATZERRIAN EROSITAKO ONDASUN EZ-ENERGETIKOEN JATORRIA

23.TAULA

	Miloi €	Urte arteko aldakuntza tasak					
	2006 (*)	2001	2002	2003	2004	2005	2006(*)
Guztira	11.189,9	1,5	1,2	2,6	15,6	4,4	11,5
ELGE	8.404,5	3,5	1,0	0,7	10,5	2,2	8,1
Eurogunea	6.196,9	1,1	4,0	-0,7	14,5	2,5	9,0
Europako kide berriak	265,2	24,9	-22,6	16,9	13,2	21,0	21,6
Europar Batasuna	7.619,1	0,0	4,3	0,6	11,7	2,5	8,0
Frantzia	1.682,0	1,9	3,3	-2,7	12,7	-4,4	11,7
Alemania	1.762,8	-10,5	13,5	-3,9	18,6	2,2	1,5
Erresuma Batua	935,7	-7,4	14,0	4,1	-0,6	-1,8	1,6
Italia	1.087,9	15,0	-4,8	-0,7	13,8	6,0	6,7
ELGEko besteak (1)	1.050,6	33,2	-21,2	4,3	2,8	4,2	11,9
AEB	253,4	36,6	-21,5	1,4	-7,4	-15,7	14,3
ELGETik kanpokoak	2.785,5	-8,3	2,1	13,1	40,0	12,6	23,0
Errusia	419,9	0,8	5,6	20,6	103,1	-3,4	14,7
Txina	780,5	-10,2	7,3	17,1	24,6	33,9	37,7
Brasil	184,9	-8,5	15,1	22,1	37,0	13,4	9,6
Munduko besteak	1.400,2	-9,1	-1,7	8,9	32,3	9,7	20,3

(*) Behin-behineko datuak (1)ELGekoak EB-15ak izan ezik.
Iturria: Eustat.

Azkenik, energiakoak ez diren inportazioek oso antzeko bilakaera erakutsi zuten. Eremu guztiek 2005ekoak baino gehikuntza tasa handiagoak lortu zituzten, baina kasu gehienetan ez zen iritsi 2004. urtean jasotako hazkunde erritmo bizietara. Europar Batasunak 2005ean nozitutako moteltzea gainditu zuen eta %8,0 areagotu zuen EAEn saldutakoa, Frantziatik eta Erresuma Batutik ekarritako inportazioen susperraldiari esker. Erresuma Batuak, bi urtez jarraian salmentak gutxitu ondoren, azkenean lortu zuen bertan gehiago saltzea. ELGEko gainontzeko herrialdeetan, AEBetako susperraldia azpimarratu behar da, bi urtez gero eta


gutxiago saldu eta gero, hazkunde tasa positiboak lortu zituelako, makinak eta tresnak ataleko produktu gehiago salduz.

ELGETik kanpo, herrialde guztiek hazkunde tasa positiboak lortu zituzten urteko batez bestean. Txina nabarmendu zen bosgarren urtez jarraian salmenten hazkunde tasa areagotu zuelako. Errusiak ere emaitza onak izan zituen, 2005eko datu txarrak jarraipenik ez duela izan agerian utziz. Portaera txarrena Brasilek izan zuen beraren esportazioak gutxiago hazi zirelako. Hala ere, hazkunde tasa garrantzitsua lortu zuen.

2.3 Lan merkatua

2006. urtean, EAEko lan merkatuak enplegua sortzen jarraitu zuen, aurreko urteetako erritmo bertsuan. BPGren bilakaerarekin koherenteen den estatistika iturriak, hots, Eustateko kontu ekonomikoetan estimatzen den lanpostuen kopuruak, enpleguaren gehikuntza tasa %2,3 izan zela adierazten du. Zenbateko hori bateragarria da ia bi puntuko ekoizkortasun irabazi batekin. Emaitza horiekin guztiekin batera, langabezia tasak beste beherakada bat lortu zuen urteko batez bestean.

Langabezia tasaren bilakaera EAEn 15. irudia



Oharra: Serie hauek ez dira guztiz homogeneoak hainbat urteetan metodologia aldaketak egin zirelako.
Iturria: Eustat eta INE.




2006ko urteko txostena

Beste behin, adierazi behar da alde handia dagoela lan merkatua aztertzeke erabiltzen diren estatistika iturrien emaitzen artean, nahiz eta XX. mendeko azken urteetan (16. irudia) batzuen zein besteen emaitzak nahiko antzeko ziren. Alde batetik, bi inkestek (Eustaten BJA eta INEren BAI) aldaketa garrantzitsuak izan dituzte beraiek egiteko metodologian, zenbait arrazoiengatik: immigrazioa dela eta biztanleriaren ezaugarriak aldatu dira, datuak biltzeko eta lantzeko orduan diseinu aurreratuagoak ezarri dira eta Europako erakundeetatik etorri diren erregelamenduak bete dira. Alderdi horiek guztiak serie ofizialen homogeneotasunean eragina dute, bereziki langabeziaren definizioari, bi estatistika erakunde horiek ondo ohartzen duten bezala.

Enpleguen bilakaera EAEn

16.irudia

Urte arteko aldakuntza tasak




Iturria: Eustat, Gizarte Segurantzeta eta INE.

Beste aldetik, Gizarte Segurantzako afiliatuen erregistroa atzerritar biztanleriaren lan egoera arautzeko 2005ean zabaldu zen prozesuak eragina izan zuen estatistika horren bilakaeran, langile horiek afiliatzera animatu zituelako. Gertakari ezohiko hori kontuan hartu behar da enpleguak azken bi urteetan izan duen joera aztertzeko orduan. Hala eta guztiz ere, prozesu horren eragina desagertzen ari zen neurrian, afiliazioaren gorakada motelduz joan zen, nahiz eta gaur arte oso aldakuntza tasa sendoak erakutsi duen, ez bakarrik atzerriko biztanleriari dagokionez (17. irudia), baita bertoko langileen artean ere. Hain zuzen ere, atzerritar afiliatuen kopurua %10,1 gehitu zen 2006. urtean eta are gehiago haziko da 2007. urtean, afiliatu nazionalen guztizkoa %2tik zertxobait gorago igoko den bitartean. Atzerritar afiliatuen kopurua afiliatu guztien multzoan oraingoz ehuneko txikia izan arren, 2001eko amaieratik 2006ko amaiera bitartean ia laukoiztu da.


Atzerritar afiliatuen bilakaera EAEn

17. irudia

Urte arteko aldakuntza tasak



Afiliatu guztiekiko pisua ehunekotan



Iturria: Gizarte Segurantza.

Analisia kontu ekonomikoen informazioan fokatzen bada, EAEko ekonomiak berriro %2aren zertxobait gainera eritmoan sortu zituela lanpostuak adierazi behar da. Aldakuntza tasa horrek esan nahi du gutxi gorabehera 22.000 lanpostu garbi sortu zirela 2006an eta guztira 987.000 lanpostu baino gehiago zeudela ekonomian. Lanpostu gehienak (19.000) zerbitzuetan sortu ziren, baina enplegu berria sortzeko eritmo biziena eraikuntzak lortu zuen (24. taula), aurreko urteetan bezala. Hala ere, urte amaieran moteltzeko joera hasi zen hautematen, 2007.

2006ko urteko txostena

urtean ere jarraitzen duena. Industriak zertxobait gutxitu zuen bere lanpostuen kopurua, baina urte amaieran suspertzeko zantzu garbiak eskaini zituen, 2007. urtean susperraldi hori garbiagoa delarik.

Industriaren ekoizpenak nabarmen gora egin zuenez eta sektore horretako enplegua zertxobait gutxitu zenez, arlo horretako ekoizkortasun irabaziak %5etik gorakoak izan ziren bigarren urtez jarraian. Emaidza horiei esker, EAeko ekonomiak azken urteetako hazkunderik handiena lortu zuen aldagai horretan eta laurogeita hamarretako hamarkadan batez beste izan zuen tasa berreskuratu zuen. Gainontzeko ekoizpen arloek hobekuntza txikiagoak lortu zituzten beren eraginkortasunean.

ENPLEGUA ETA EKOIZKORTASUN IRABAZIAK EKONOMIAREN ARLOETAN

24. TAULA

Urte arteko aldakutza tasak

	2001	2002	2003	2004	2005	2006
Enplegua guztira:	3,2	2,2	2,5	2,8	2,2	2,3
Ekoizkortasuna guztira:	0,1	0,2	0,6	0,9	1,8	1,9
-Enplegua lehen arloan	-3,3	-0,3	-2,9	1,5	-5,1	0,8
-Ekoizkortasuna lehen arloan	14,0	-0,4	-3,3	29,4	-9,2	-10,5
- Enplegua industrian	3,0	1,2	1,2	0,9	-0,6	-0,6
- Ekoizkortasuna industrian	-0,5	-0,1	0,0	2,0	5,5	5,5
- Enplegua eraikuntzan	9,3	6,8	6,2	4,9	3,7	3,7
- Ekoizkortasuna eraikuntzan	-0,1	-1,5	-1,2	-0,5	1,0	1,4
- Enplegua zerbitzuetan	2,8	2,1	2,8	3,4	3,5	3,3
- Ekoizkortasuna zerbitzuetan	0,3	0,6	0,5	-0,1	0,0	0,5

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina Eustaten datuetan oinarrituta.

Landunen analisia BJA inkestaren datuekin jarraituz, 15 eta 64 urte bitarteko enplegu tasa %66,5ean kokatu zen 2006. urtean, Europar Batasuneko batez besteko tasa bi puntu eta hamarren batez gainditzen duelarik. Hala ere, EAeko tasa oraindik urrun dago Lisboako Estrategian 2010. urterako ezarri zen helburutik, hau da, enplegu tasa %70era igotzeko asmo horretatik. Enplegu tasan lortutako gehikuntza, alde batetik, emakume landunen bilakaera positiboaren ondorioa da, bere kopurua %3,4 areagotu zutelako. Aitzitik, lana duten gizonen kopuruak behera egin zuen (%-0,1). Beste aldetik, 25etik 44 urte bitarteko taldeak eta 44 urtetik gorako taldeak izan zuten emaitza onak ere lagundu zuen enplegu tasa igotzen. Hain

zuzen ere, %1,5 eta %2,7 hazi ziren hurrenez hurren bi talde horien kopuruak. Txanponaren ifrentzuan, eta aurreko urtean bezala, gazte landunen kopuruak behera egin zuen eta %-6,3ko aldakuntza tasa jaso zuen. Emaizta hauek agerian uzten dute EAEko lan merkatuaren egitura gero eta zaharragoa dela.

LAN MERKATUAREN ALDAGAI NAGUSIAK

25. TAULA

	Lagunak		Urte arteko aldakuntza tasak				
	2006	2001	2002	2003	2004	2005	2006
Parte hartzaileak	994.700	0,5	1,7	1,8	0,7	-0,9	-0,4
-Gizonak	571.180	0,0	1,2	0,3	-0,5	-0,7	-1,1
-Emakumeak	423.475	1,2	2,5	3,8	2,5	-1,3	0,7
Landunak	954.180	3,5	5,0	1,4	1,6	1,3	1,4
-Gizonak	549.930	2,2	3,2	-0,6	-0,5	1,2	-0,1
-Emakumeak	404.250	5,6	7,8	4,6	4,7	1,5	3,4
Langabeak	40.525	-18,2	-24,3	5,5	-8,7	-27,5	-28,9
-Gizonak	21.275	-21,0	-23,6	15,3	-0,5	-27,6	-22,5
-Emakumeak	19.225	-16,2	-24,7	-1,2	-15,1	-27,4	-34,9

Iturria: Eustat.

Lanbide egoerari dagokionez, aurreko urteetako joerak bere horretan mantendu ziren. Izan ere, landun soldatapekoen multzoak gora egin zuen berriro (%1,8) eta bere kontura lan egiten duten pertsonen kopuruak, ordea, behera egin zuen (%-0,4). Horiek horrela izanda, 2006. urtean, soldatapekoen biztanleria enplegu osoaren %82,1era iritsi zen, multzo handi horretatik gehienak (soldatapekoetatik %83) arlo pribatuan aritzen direlarik. Beren kontura lan egiten dutenen artean, bereziki autonomoen bilakaera nabarmendu behar da, 2006an landun guztien %12,3 zirelako.

Kontratu motak kontuan hartzen badira, kontratu mugagabea duten soldatapekoen kopurua %71,3an kokatu zen azken ekitaldian, aldi baterako kontratua zutenak %25,3 izan ziren bitartean. Beraz, 2003. urtean hasi zen enplegua egonkortzeko joerari jarraipena eman zaio 2006. urtean ere. Hala eta guztiz ere, aldibaterakotasun tasa oraindik oso handia da eta Europako emaitzaren oso gainetik jarraitzen du (18. irudia), nahiz eta lurralde batean eta


2006ko urteko txostena

bestean aurkako bilakaerak gertatu direnez, beraien tasak gero eta hurbilago daude. Enpleguaren kalitatea hobetzeko askoz, Eusko Jaurlaritzak 2007ko uztailaren 17an Enplegurako Plana onartu zuen 2007tik 2010ra bitarteko eperako.

Aldi baterako enplegu tasa soldatapeko guztiekiko

18. irudia

%





Eustat: Eustat eta Eurostat.

Lan jardunaldiari dagokionez, 2006. urtean batez beste 36 ordu eta 35 minutu lan egin ziren aste bakoitzean, 2005eko datua sei minututan jaitsiz. Beraz, lanaldia murrizteko joera bere horretan jarraitzen du, nahiz eta urtetik urtera denboraren murrizketak gero eta txikiagoak diren. Beharbada 2006. urtean azpimarratu behar den ezaugarri nagusia sexuaren arabera hauteman den portaera ezberdina da, zeren eta gizonen batez besteko lanaldia hamaika minututan murriztu baitzen, baina emakumeena bost minutuz luzatu, astiro doan bat egiteko joera bat agerian utziz. Ekonomia arloen arabera, industriaren eta eraikuntzaren lanaldia 38 orduetatik gorakoa da oraindik, zerbitzuetakoa 35,5 orduen zertxobait gaineratik kokatzen den bitartean. Gogoratu behar da lanaldi laburreko kontratua batez ere zerbitzuetan erabiltzen dela. Zehazkiago adierazita, zerbitzuetan lan egiten duten pertsonen %16 hogeita hamar ordura iristen ez zen lanaldi bat egiten zuen, ehuneko hori industrian eta zerbitzuetan %7aren azpian zegoen bitartean. Lanaldi horiek gehiago erabiltzen dituzte emakumeek (kolektibo horretako %21) eta 25 urtetik beherako gazteek (%20). Aitzitik, ginonen %7k baino gutxiagok erabiltzen zuen lanaldi laburra.

Lanaldiaren bilakaera

19. irudia

Lan egindako orduak aste bakoitzeko



Iturria: Eustat eta Eurostat.

Estatistika iturri guztiak bat datoz langabeziak behera egin zuela adierazteko orduan. BJA inkestak beherazko joerari eutsi zion eta 2005. urteko datuaren aldean lanik gabe zeuden lagunen kopurua %-28,9 murriztu zela adierazi zuen. Horren ondorioz, langabeen kopurua 40.500 pertsonatan kokatu zen. Bereziki azpimarragarria dira gazteen beherakada (%46,7) eta lanik gabeko gizonen kopuruak (21.300 lagun) emakumeena (19.200 lagun) gainditu izana. Langabezia tasa ere nabarmen gutxitu zen eta 2005. urteko %5,7tik 2006ko %4,1era jaitsi zen. Emaitza hori Europar Batasuneko batez bestearen oso azpitik dago kokatuta (26. taula) eta enplegu betetzat jotzen den mailara asko hurbildu da.

Kontuan hartzeko beste estatistika batzuek ere, hala nola BAI inkestak eta INEMek jasotako langabeziak, antzeko bilakaera erakutsi zuten, nahiz eta beherakada txikiagoa izan. Estatistiken arteko alde horien atzean metodologian egindako aldaketak egon daitezke, BAI inkestari dagokionez, edo pertsona bat langabetzat hartua izateko definizio ezberdinak erabili izana. Hain zuzen ere, BJA inkestak ez ditu langabetzat jotzen zenbait pertsona, dela enplegua modu aktibo batean bilatzen ez dutelako (langabezia saria jasotzen duten aurretik erretiratuak) dela pertsona horiek lanpostu bat lortzeko egiten duten ekintza bakarra enplegurako bulego publiko batera joatea delako, baina azken lau asteetan ez dutelako inolako harremanik bulego

2006ko urteko txostena

horrekin. Egoera horietan dauden lagunak lan merkatuko inkestek erabiltzen duten definiziotik kanpo geratzen dira.

LANGABEZIA TASAREN BILAKAERA EAE-N ETA EUROPAN

26. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasa

	2001	2002	2003	2004	2005	2006
Alemania	7,4	8,2	9,0	9,5	9,5	8,4
EAE	11,1	8,3	8,6	7,8	5,7	4,1
España	10,6	11,5	11,5	11,0	9,2	8,5
Frantzia	8,4	8,7	9,5	9,6	9,7	9,5
Italia	9,1	8,6	8,4	8,0	7,7	6,8
Erresuma Batua	5,0	5,1	4,9	4,7	4,8	5,3
Europar Batasuna	8,4	8,8	9,0	9,0	8,7	7,9

(1) Biztanleria berrikusi ondoren jasotako emaitzak (2001eko oinarria).

Iturria: Eustat, Eurostat eta INE.

ERREGISTRATUTAKO LAN KONTRATUEN BILAKAERA

27. TAULA

	Kontratuak		Urte arteko aldakuntza (%)				
	2006	2001	2002	2003	2004	2005	2006
Guztira	803.596	-0,6	-0,2	5,2	6,4	1,9	3,1
Lanaldi osoko mugagabeak	22.671	-23,6	-17,6	-5,4	-1,0	3,6	9,4
Obra edo zerbitzukoak	192.848	1,3	-3,3	1,6	4,2	-3,6	-0,1
Abagunekoak	230.238	-8,8	-3,8	5,3	5,9	0,6	3,2
Abagunekoak	243.021	13,1	10,6	6,9	9,5	8,4	2,9
Prestakuntzakoak (*)	9.303	-8,4	-7,6	-13,2	6,4	-3,9	0,7
Gainontzekoak	105.515	4,3	1,0	14,8	7,1	2,2	8,8

(*)Prestakuntzako kontratuetan, lanaldi laburreko praktika kontratuak sartzen dira.

Iturria: INEM.

Enpleguak erakutsi duen bilakaera onarekin bat eginez, lan kontratazioak, INEMek emandako datuen arabera, 2003. urtean hasitako goranzko joerari eutsi zion, kontratu mugagabeek eta

aldi baterako kontratuak izan zuten gorakadaren ondorioz. Hain zuzen ere, lehenengok bilakaera hedakorragoa izan zuten eta %12,4 gehitu ziren, aldi baterako kontratuen kopurua %2,4 bakarrik igo zen bitartean. Hala ere, sinatzen diren kontratu gehienak aldi baterakoak dira oraindik, kontratu berri guztietatik %96 biltzen dituztelako.

Azkenik, analisisia kontratu mugagabeetan fokatzen bada, azpimarratzekoa da kontratu horiek izan zuten hazkunde garrantzitsua, batez ere urtearen azken zatian, azken lan erreformaren ondorioz jaso zuten bultzadarengatik. Zehazkiago adierazita, 2006. urtean mugagabe bihurtu ziren aldi baterako kontratuak oso nabarmen areagotu ziren (%72,6) eta, halaber, lanaldi laburreko kontratu mugagabeen kopurua ere asko igo zen, %19,1, eta dagoeneko kontratu mugagabeen %32,5 dira.

KONTRATU MUGAGABEEN BILAKAERA

28. TAULA

	Kontratuak		(kontratuen guztizkoan duten pisua)				
	2006	2001	2002	2003	2004	2005	2006
Ohiko mugagabeak	12.906	1,9	1,7	1,5	1,4	1,5	1,7
Mugagabe berriak	9.472	1,8	1,4	1,3	1,2	1,2	1,2
Lanaldi osoko beste mugagabeak	293	0,1	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
Lanaldi osoko mugagabe guztiak	22.671	3,8	3,1	2,8	2,6	2,7	2,9
Lanaldi laburreko mugagabeak	10.909	1,5	1,5	1,4	1,3	1,2	1,4
Mugagabeak guztira	33.580	5,3	4,6	4,2	3,9	3,8	4,3
Kontratu berriak guztira	803.596	---	---	---	---	---	---

Iturria: INEM.

2.4 Prezioak, kostuak eta soldatak

2006. urtean, prezioen bilakaera aurrez pentsa zezakeena baino positiboagoa izan zen, kontuan hartzen bada petrolioak izan zuen garestitze garrantzitsua eta EAeko ekonomiak lehengai horrekiko duen mendekotasuna. Izan ere, kontsumoko prezioak aurreko urtean baino hamarren bat gehiago bakarrik igo ziren (%3,3 2005. urtean eta %3,4 2006. urtean), BPGren deflatoreak KPIrenak bezalako balioak izan zituen (%3,4 bi urteetan) eta IPRI indizeak bere urte arteko aldakuntza tasa gutxitu zuen, %5,2tik %4,9ra igarota.

2006ko urteko txostena

BPGren deflatoareen analisiari dagokionez, azpimarratu behar da ekonomiaren arlo guztiek, salbuespen bakarra industria izan zelarik, aurreko urtekoak baino balio handiagoak jaso zituztela. Hala ere, gorakada hori ez zen oso garrantzitsua izan eraikuntzan, bi hamarrenetara mugatu zelako. Zerbitzuetako deflatoareak, berriz, ez zuen inolako keinurik egin bere hazkunde erritmoa apaltzeko eta %3aren gainera jarraitu zuen, aurreko urteetan bezala. Azkenik, industriaren deflatoareak zertxobait egin zuen behera eta agerian utzi zuen berriro arlo horretako salneurriak gainontzeko sektoreetakoak baino gutxiago hazten direla, kanpo lehiara irekiago dagoelako.

DEFLATOREEN BILAKAERA

29. TAULA

	2001	2002	2003	2004	2005	2006
BPGren deflatoarea	2,1	2,8	3,3	4,4	3,4	3,4
Lehen arloko deflatoarea	-15,3	4,4	3,6	-21,1	10,0	10,8
Industriaren deflatoarea	1,3	1,2	1,8	6,1	2,6	2,4
Eraikuntzaren deflatoarea	6,7	5,5	11,4	5,3	4,5	4,7
Zerbitzuen deflatoarea	3,2	3,3	3,0	3,4	3,0	3,4

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina Eustaten datuetan oinarrituta

Prezioak

Aurreko ekitaldian bezala, prezioen bilakaera, 2006. urtean, petrolioaren joera gorabeheratsuak baldintzatu zuen. Lehengai hori nabarmen garestitu zen 2006. urteko lehen zortzi hilabeteetan, kontsumoko prezioen indize orokorra %4aren inguruko mailara hurbilaraziz. Geroztik, irailetik aurrera, petrolio gordinaren salneurriak behera egin zuen eta inflazioa %3,4ra jaitsi, aurreko urteko tasa hamarren bat gaindituz. Hala eta guztiz ere, tasa hori urrun zegoen oraindik Europako Banku Zentralak bere moneta politikan ezarri duen urte arteko aldakuntza tasa %2 ez gainditzeko helburutik.

KONTSUMO PREZIOEN INDIZEAREN BANAKETA

30. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak eta ekarpenak



	2002	2003	2004	2005	2006	Ekarpena
Inflazioa guztira (%100)	3,7	2,8	3,0	3,3	3,4	3,4
Azpiko inflazioa (%82,7)	4,0	2,7	2,7	2,7	2,9	2,4
KPI Landutako elikagaiak (%15,4)	4,3	3,0	3,7	3,5	3,6	0,6
KPI Industriako ondasunak (%28,8)	2,4	1,6	0,5	0,7	1,4	0,4
KPI Zerbitzuak (%38,5)	5,2	3,4	4,0	3,9	3,7	1,4
Hondarreko inflazioa (%17,3)	2,2	3,7	4,6	6,3	6,1	1,0
KPI Landugabeko elikagaiak (%8,6)	4,6	5,9	5,1	4,3	4,3	0,3
KPI Energia (%8,7)	-0,2	1,4	4,2	8,4	7,9	0,7

Iturria: INE.

KPIren bilakaera

20. irudia

Urte arteko aldakuntza tasak



Iturria: INE eta Eurostat.

Talde berezien analisia landutako elikagaiekin hasita, adierazi behar da beraien urte arteko tasak ia ez zuela inolako aldaketarik jaso eta 2005. urtean %3,5 hazi baziren, 2006an %3,6an kokatu zuten hazkunde tasa. Are gehiago, tasa hori moteldu zen azken hilabeteetan, olioak urte amaieran izan zuen merkatzeak eta tabakoaren gaineko zergen igoera aurreko urtekoa



2006ko urteko txostena

baino txikiagoa izateak lagunduta. Beste aldetik, energiakoak ez diren industriaren ondasunen prezioek, aurreko urtearen igoera bikoiztu zuten arren (%0,7 2005. urtean eta %1,4 2006an), hobekuntza garrantzitsua izan zuten azken hilabeteetan, inportatutako ondasunen prezioei esker. Landu gabeko elikagaien eta zerbitzuen salneurriak, berriz, egonkor mantendu ziren, azken hauek, bere zurruntasuna gorabehera, bi hamarren murriztu baziren ere.

KPIren talde berezien bilakaera

21. irudia

Urte arteko aldakuntza tasak





Iturria: INE.

Azpiko inflazioaren bilakaera

22. irudia


Urte arteko aldakuntza tasak



Iturria: INE eta Eustat.

Petrolioaren eta lehengaien salneurriek urteko batez betean jaso zuten gehikuntza nabarmena izan arren, inflazioaren gaineko presioak ez ziren bereziki garrantzitsuak. Azpiko inflazioa, urteko azken hilabeteetan bere hazkunde gutxitu ondoren, bi hamarrenetako gorakada jaso zuen aurreko urteko emaitzaren aldean eta %2,9an kokatu zen. Hala ere, balio horiek gero eta urrunago daude Europako herrialde nagusiek erakutsi dituztenetatik. Zehazkiago adierazita, EAeko aldakuntza tasak ia bikoizten du Euroguneak batez beste jasotakoa (%1,5).

EAEren eta Eurogunearen arteko inflazio tartea 23. irudia



Iturria: INE eta Eurostat.

Prezioak urteko azken zatian apaldu baziren ere, Eurogunearekiko inflazio tartea ez zen murriztu, eremu horretako inflazioa %2,2ko tasan berriro kokatu zelako. Alderantziz, bi lurraldeen arteko inflazio tartea hamarren bat zabaldu zen aurreko urteko datuaren aldean.

2006ko urteko txostena

Osagai gorabeheratsuenaren portaera hori garraioan eta etxebizitzan hauteman zen bereziki, inflazio tasarik altuenetarikoa jaso zutelako. Hauekin batera, zerbitzuekin harremana duten taldeak ere, lehia gutxiago nozitzen baitute, hazkunde tasa handiak izan zituzten. Beraz, ekoizkin talde guztiak, salbuespen bakarra edari alkoholodunak eta tabakoa biltzen dituen delarik aurreko urteko igoerak 2006koak baino handiagoak izan zirela baliatuta, gehiago garestitu ziren EAEn Eurogunean baino (23. irudia). Guztien artean etxeko hornidura gailentzen da, EAEn Eurogunean baino bi puntu gehiago garestitu zelako.

EAE-KO KONTSUMO PREZIOEN INDIZEA

31. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2001	2002	2003	2004	2005	2006
Indize orokorra	3,9	3,7	2,8	3,0	3,3	3,4
Janariak eta alkoholik gabeko edariak	5,4	4,2	4,1	4,3	3,6	4,1
Edari alkoholodunak eta tabakoa	3,0	5,2	3,0	3,7	4,8	2,0
Jantziak eta oinetakoak	2,8	5,1	3,0	0,7	0,7	1,1
Etxebizitza	4,3	3,0	2,9	4,2	5,0	6,3
Etxeko hornidura	4,4	2,1	1,7	2,2	2,2	3,0
Medikuntza	2,2	3,4	1,8	0,7	1,0	1,9
Garraioa	1,0	2,3	2,1	4,1	5,6	4,3
Komunikazioak	-0,7	-2,9	-2,6	-1,1	-1,6	-1,3
Aisia eta kultura	3,8	2,6	0,0	-0,2	-0,3	0,4
Irakaskuntza	4,7	3,9	4,7	4,4	4,2	4,5
Hotelak, kafeak eta jatetxeak	5,1	5,2	3,6	4,0	4,4	3,9
Besteak	5,5	5,1	3,1	2,6	3,1	3,0

Iturria: INE.



Industria prezioei dagokienez, 2006. urtean moteltze arina gertatu zen eta 2005eko %5,2tik 2006ko %4,9ra murriztu zen urte arteko aldakuntza tasa. Bilakaera hori oso lotuta dago petrolioaren salneurriaren bilakaerarekin eta horren ondorioz EAEko IPRI indizea Europako industria prezioetatik urrundu zen. Izan ere, lehengai horren pisua azken prezioan handiagoa da EAEko ekoizkintan Europako produktuetan baino. Ondasunen helburu ekonomikoaren ikuspegitik, ekipamendurako ondasunen salneurriak bakarrik hazi ziren aurreko urtean baino gutxiago, kontsumorako ondasunak eta bitarteko ondasunak nabarmen garestitu ziren

bitartean. Azken horiek garestitu ziren bereziki, metalen eta elikagai lehengaien prezioak asko igo zirelako.

IPRIren bilakaera

24. irudia

Urte arteko aldakuntza tasak



Iturria : Eustat eta Eurostat.

EAEko industria prezioen indizea

32. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2001	2002	2003	2004	2005	2006
Indize orokorra	0,7	0,3	1,8	4,3	5,2	4,9
- Kontsumoko ondasunak	4,1	2,2	1,6	1,9	1,7	2,7
- Kontsumo iraunkorrak	2,0	1,1	0,3	0,9	2,2	0,7
- Kontsumo iragankorrak	5,1	2,7	2,7	2,4	1,5	3,7
- Ekipamendu ondasunak	1,0	0,7	3,4	1,0	1,8	0,9
- Bitarteko ondasunak	0,8	0,9	1,8	6,8	5,2	5,6
- Energia	-5,2	-4,0	0,0	5,5	17,0	11,9

Iturria: Eustat.

2006ko urteko txostena

Kostuak eta soldatak

2006. urtean zehar, banakako lan kostuek apaltze garbia erakutsi zuten, aurreko urteko %1,8tik orduko %0,3ra. Apaltze horren arrazoiak ekonomiaren ekoizkortasunak izan zuen hazkundera, aurreko urtekoa baino hamarren bat handiagoa izan baitzen, eta bereziki soldata kostua langile eta hilabete bakoitzeko oso tasa txikian kokatu izana dira, azken alderdi honek Europako gainontzeko herrialdeen aldean lehiakortasuna areagotzen baitu.

BANAKAKO LAN KOSTUEN BILAKAERA

33. TAULA

	2001	2002	2003	2004	2005	2006
BPG erreala	3,3	2,4	3,1	3,7	4,0	4,2
Enplegua	3,2	2,2	2,5	2,8	2,2	2,3
Itxurazko ekoizkortasuna	0,1	0,2	0,6	0,9	1,8	1,9
Lan kostua langileko	2,8	4,2	2,9	2,9	3,6	2,2
Banakako lan kostua	2,7	4,0	2,3	2,0	1,8	0,3

Iturria: Eustat eta INE.

Horiek horrela izanda, INEren datuen arabera eta 2005. urtean ez bezala, 2006. urtean soldaten igoera (%2,2) inflazioa (%3,4) baino gutxiago hazi ziren, EAEko langileek erosteko ahalmena galdu zutelarik. Horren ondorioz, eta industriako zein zerbitzuetako kostuetan oinarrituta, lan kostuak guztira %2,3 baino ez ziren hazi, Europar Batasuneko herrialdeen batez bestea zazpi hamarren gorago zegoen bitartean. Gogoratu behar da aurreko urteko egoera alderantzizkoa zela eta EAEko kostuek puntu batean gainditzen zutela Europako kostuak.

Hitzarmen kolektiboetan adostutako soldata igoeren bilakaerak aurreko urteetan baino tasa handiagoak erakutsi zituen 2006. urtean. Igoera hori bereziki sektore mailako hitzarmenetan gauzatu zen, enpresako hitzarmenek aurreko urteko emaitza bera jaso zutelako. Hitzarmen kolektiboak negoziatzeko orduan erreferentzia nagusia aurreko urteko inflazioa izan arren, gero eta hitzarmen gehiagotan hartzen da kontuan inflazioaren aurreikuspena, adostutako testuan soldatak berrikusteko klausula bat sartzen delarik. Joera horren ondorioz, hurrengo

urtearen hasieran kostuak igotzen dira, baina inflazioa negoziazio kolektibora zuzenean igarotzeko urratsa ekiditen da.

HITZARMENETAN ADOSTUTAKO SOLDATA IGOERAK

34. TAULA

	2001	2002	2003	2004	2005	2006
Indarrean dauden hitzarmenak	4,5	3,9	4,4	4,0	4,5	4,9
- Urtean zehar sinatutakoak	4,4	3,8	4,9	3,9	4,3	5,0
Negoiazio esparruaren arabera:						
- Sektoreko hitzarmenak	4,5	3,9	4,5	4,0	4,6	5,0
- Enpresako hitzarmenak	4,1	4,0	3,9	3,8	4,1	4,1

Iturria: Lan Harremanen Kontseilua.

2.5 Arlo publikoa

Azken urteetan, aurrekontuan pisu gehien duten kapituluak, hots, gastu arruntak eta diru sarrera arruntak, BPG nominala baino gehiago hazi dira. Zehazkiago adierazita, azken hiru urteetan diru sarrera arrunten gehikuntza nabarmendu da (35. taula), izaera bereko gastuen igoera gainditzen baitu, eragiketa arrunten saldoa positiboa eta tamaina handikoa izatea ahalbidetuz.

Diru sarrera arrunten hobekuntza EAEko ekonomiak bizi duen une gozoaren ondorioa da eta badu bere isla diru bilketa handiago batean, hala zuzeneko zergetan nola zeharkakoetan. Gastu arruntak, berriz, gehiago hurbildu dira BPG nominalaren gehikuntza tasara, gastu publikoa gehiegi ez hazteko testuinguru batean. Kapitaleko eragiketetan, 2006. urtean gorakada garrantzitsua gertatu zen gastuan (%11,1), bereziki transferentzien igoeraren ondorioz, inbertsio errealean gehikuntzarengatik baino gehiago. Hala ere, azken aldagai hori aurreko hiru urteetan baino gehiago hazi zen 2006an.

Gastuen kapituluan, gastu arrunten igoera transferentzien ataleko bilakaerak baldintzatu zuen nagusiki, baina funtzionamenduko gastuak ere bi zenbakiko erritmoan hazi ziren. Aurreko urteetan bezala, langileak ordaintzeko gastuak gutxiago hazi ziren, ekonomia osoaren

2006ko urteko txostena

hazkunde nominala baino gutxiago. Gastu finantzarioek, berriz, beheranzko joerari eutsi zioten, interes tasak igo ziren arren.

EUSKO JAURLARITZAREN ETA FORU ALDUNDIEN GASTU BATERATUKO ERAGIKETAK

35. TAULA

Mila euro

	Urte arteko aldakuntza (%)						
	2006	2001	2002	2003	2004	2005	2006
1. SARRERA ARRUNTAK	13.106.492	2,6	5,7	5,5	9,9	11,2	11,2
2. GASTU ARRUNTAK	10.447.524	10,0	5,2	9,3	7,5	7,3	8,8
Langileen gastuak	1.845.784	7,0	4,4	5,0	3,5	5,5	5,7
Funtzionamenduko gastuak	2.774.548	11,5	11,5	9,4	6,7	7,0	10,6
Finantza gastuak	94.073	-8,4	-20,8	7,3	-1,2	-13,1	-13,5
Transferentzia arruntak	5.733.120	11,3	3,6	10,9	9,6	8,6	11,7
3. ERAGIKETA ARRUNTEN SALDOA (1-2)	2.658.968	-23,8	7,8	-13,3	25,3	32,5	21,9
4. KAPITALEKO SARRERAK	99.368	91,1	51,3	-22,5	-34,4	13,8	-22,4
5. KAPITALEKO GASTUAK	1.602.516	8,2	14,9	-2,1	-2,7	2,2	11,1
Inbertsio errealak	813.197	20,4	26,4	3,3	-2,2	4,3	7,0
Kapitaleko transferentziak	789.319	-0,8	4,7	-0,8	-3,4	-0,1	15,7
6. KAPITALEKO ERAGIKETEN SALDOA (4-5)	-1.503.148	-2,5	-10,3	-1,5	-1,5	-1,2	-14,3
7. FINANTZAZ BESTELAKO SALDOA (3+6)	1.155.820	-64,1	-2,8	-86,7	925,9	149,6	33,4

Iturria: Ogasun eta Herri Administrazio Saila.

Diru bilketari dagokionez, itunpeko zergek zertxobait gutxitu zuten ordura arte zeramaten goranzko joera, bost urtez jarraian gero eta hazkunde handiagoak lortu ondoren. Hala ere, oso hazkunde tasa garrantzitsuak (%11,4) lortu zituzten berriro, hala zuzeneko zergek nola zeharkako zergek gora egin zutelako. Are gehiago, bi multzo horiek ibilbide paraleloak eta diru bilketan ia pisu bera erakutsi zuten.

Analisia zuzeneko zergekin eta, zehazkiago, PFEZ zergarekin hasita, adierazi behar da zerga horren diru bilketa %10eko hazkundearen gainetik eta 2005. urtea baino lehen lortutako emaitzetatik oso gora mantendu zela, lan merkatuaren egoera onari esker. Alde batetik, enplegua erritmo bizian sortu zen eta, beste aldetik, aldibaterakotasun tasa murriztu zen kontratu mugagabeak bultzatuta, azken hauetan soldata hobeak lortzen baitira.

ZERGA ITUNDUEN BILAKAERA

36. TAULA

Mila euro

	Zergak		Urte arteko aldakuntza (%)				
	2006	2001	2002	2003	2004	2005	2006
PFEZ	3.754.206	8,0	4,7	5,1	1,1	11,5	10,3
- Lanaren eta lanbide jardueraren etekinen atxikipenak	3.755.029	7,8	7,0	6,2	4,0	8,2	8,7
- Kapital higigarriaren etekinen atxikipenak	151.843	11,3	4,3	-11,9	-4,8	17,3	13,7
- Kapital higiezinaren etekinen atxikipenak	32.733	3,4	6,2	5,8	8,4	5,5	8,3
- Ondare irabazien atxikipenak	21.167	-52,6	-26,9	-27,7	-18,6	53,5	35,7
- Profesionalen eta enpresarien ordainketa zatikatuak	174.584	3,8	-0,6	1,2	1,6	2,5	5,9
- Kuota diferentzial garbia	-381.149	4,3	-20,3	-4,9	-23,0	12,9	3,7
Sozietateen gaineko zerga	1.692.381	6,6	7,5	0,1	9,7	26,4	17,5
- Kapital higigarriaren etekinen atxikipenak	151.843	11,3	4,3	-11,9	-4,8	17,3	13,7
- Kapital higiezinaren etekinen atxikipenak	32.733	3,4	6,2	5,8	8,4	5,5	8,3
- Ondare irabazien atxikipenak	21.167	-52,6	-26,9	-27,7	-18,6	53,5	35,7
- Kuota diferentzial garbia	1.486.639	10,1	9,1	2,4	12,0	27,8	17,9
Ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga	70.457	-42,2	-36,2	-52,8	117,3	48,8	53,3
Oinordetza eta dohaintzen gaineko zerga	76.347	-17,9	20,9	13,9	-8,5	70,3	-3,5
Ondarearen gaineko zerga	127.069	2,1	-8,6	-11,8	-2,7	14,5	18,8
ZUZENENKO ZERGAK GUZTIRA	5.720.551	6,1	4,7	3,0	3,4	16,4	12,7
BEZaren bertoko kudeaketa	3.464.922	6,9	1,0	10,4	15,1	23,7	16,5
Ondare eskualdatzeen gaineko zerga	367.946	-16,9	3,0	18,0	21,2	10,1	19,7
Egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga	136.604	-10,4	26,0	8,7	0,5	2,9	18,4
Garraibide jakin batzuen gaineko zerga bereziak	70.351	1,3	-7,0	3,4	7,8	5,1	8,4
Fabrikazioaren zerga berezia. Bertoko kudeaketa	1.411.214	2,4	7,6	3,8	7,0	3,5	5,3
Hidrokarburu jakin batzuen txikizkako salmentaren zerga	50.091	---	---	39,1	1,9	6,0	5,2
Aseguru sarien gaineko zerga	71.940	8,4	9,6	7,0	7,2	9,6	1,4
ZEHARKAKO ZERGAK GUZTIRA	5.575.248	3,2	4,8	8,7	12,1	15,5	13,2
TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK GUZTIRA	103.646	6,5	10,0	5,5	-4,5	1,7	-1,6
BERTON KUDEATUTAKO ZERGA ITUNDUAK	11.399.446	4,7	4,8	5,6	7,3	15,8	12,8
BEZaren doikuntza	1.208.903	-4,4	6,3	10,0	6,7	-2,3	-0,3
Zerga berezian doikuntza	-56.048	-528,4	-2,0	-9,3	29,1	17,0	-7,1
ITUNDUTAKO ZERGAK GUZTIRA	12.552.300	2,7	5,0	6,1	7,6	13,7	11,4

Iturria: Foru Aldundiak.

2006ko urteko txostena

Sozietateen gaineko zergak, zuzeneko zergen beste oinarria baita, bilakaera positiboa izan zuen bere atal nagusi guztietan eta gainontzeko zerga behinenek baino gehikuntza tasa handiagoak lortu zituen. PFEZ zergak bezala, sozietateen gaineko zergak azken bi urteetan jaso ditu bere gehikuntza tasarik gorenak, enpresek bizi duten egoera ona agerian utziz.

Zeharkako zergei dagokienez, BEZ zerga, azken kontsumoko gastuaren bilakaerarekin bat eginez, ekarpen ekonomiko handiena egin zuen zerga izan zen berriro. Diru bilketa hori areagotua izan zen, neurri batean, 2006. urtean lehen aldiz ekitaldi oso batean, inportazioztat hartzen diren eragiketak barnean egindako eragiketen gaineko BEZen diru bilketaren parte izan direlako.

Azkenik, fabrikazioko zerga berezien artean, pisu gehien duenak, hots, hidrokarburoen gaineko zergak, zertxobait hobetu zuen dirua biltzeko ahalmena (%4,9). Are gehiago, ahalmen hori erregaien gaineko zergak izango duen gorakadak handituko du, azken sei urteetan ia aldaketarik gabe mantendu baitzen. Halaber, alkoholaren eta tabakoaren gaineko zerga berezia igoko dela espero da.

2.6 Finantza arloa





Finantza arloak 2006. urtean izan zituen ezaugarri nagusiak honako hauek izan ziren: hazkunde iraunkorreko testuingurua, moneta hazkundearen sendotasuna, arlo guztiek eginiko maileguen eskaria handian oinarrituta, kredituaren hedatze zabala eta likidezia handia, bereziki Eurogunean. Izan ere, 2006. urtean, M3 deitzen den moneta agregatuak urte arteko hazkunde tasarik gorena jaso zuen 1999. urteko urtarrilean Ekonomia eta Moneta Batasunaren (EMB) hirugarren fasea hazi zenetik. Oro har, moneta eta kreditu hazkunde sendo batek, likidezia handiko testuinguru batean, goranzko presioa egiten du prezioen egonkortasunean epe ertain eta luze bati begira. Hori kontuan hartuta, eta inflazioaren presioak kontrolpean gordetzeko asmoz, ekonomia eremu nagusi gehienetan moneta politikak alboan utzi zituen ordura arteko baldintza erosoak eta epe luzerako interes tasak igo ziren.

Zehazkiago adierazita, Europako Banku Zentralak (EBZ), aldi bakoitzean 25 oinarri puntu igota, Eurosistema finantzatzeko eragiketa nagusietako eskaintzen gutxieneko tasa 2006ko urtarrilean zegoen %2,25etik 2007ko irailean zegoen %4,0ra igo zuen. Erabaki horien

ondorioz, EBZk bi puntuz igo ditu interes tasak 2005. urteko abendutik. ‘Subprime’ motako hipoteken inguruan sortutako krisiak eragin zuen ziurgabetasuna eta Erreserba Federalak hartutako interes tasak jaisteko erabakia dira EBZk interes tasak berriro igotzeko erabakia geroratzeko arrazoiak. Diruaren merkatuan gaur egun dauden tentsioek -EBZ 200.000 milioi euro baino gehiago sisteman sartzera bultzatu baitute- bere horretan jarraitzeak eta arrisku gehiago dagoela usteak pentsarazten dute interes tasak ez direla aldatuko denbora tarte zabal batean.

Banku zentraletako erreferentzia tasak 25. irudia

Ehunekoak



Iturria: Espainiako Bankua.

2006ko urteko txostena

Erreserba Federalak ere EBZen joera bera erakutsi zuen urte hasieran eta interes tasak igo zituen, 2006ko urtarrileko %4,25etik urte bereko ekaineko %5,25era. Une horretatik aurrera, Fed-ek hamalau hilabetez jarraian aldaketarik gabe atxiki zituen interes tasak, ekonomiaren egoera hobeari eta prezioen egonkortasunari esker. Hala ere, 2007ko lehen sei hilabetean ekonomiak izan zuen hazkunde apalagoak eta higiezin merkatuko krisia gogortu izanak, moneta sisteman likidezia sartzea eskatu baitzuen, irailean Erreserba Federala behartu zuen parte hartze tasa murriztera eta 50 oinarritzko puntu jaitsi zuen. Hori izan zen azken lau urtean AEBetako moneta agintariak interes tasak jaisten dituzten lehen aldia.

Datozen hilabeteetan prezioek nondik nora joko duten ez dago oso garbi eta zalantza asko dago adituen artean, are gehiago kontuan hartzen bada lehengaien gaur egungo egoera. Bereziki kezagarria da petrolioaren bilakaera, azken egunetan 80 dolarren gaineko salneurrian kokatu delako. Ziurgabetasun horien ondorioz, AEBetako moneta agintaritzak berriro azpimarratu du badaudela inflazio arrisku handiak eta prezioen bilakaera hurbiletik zaintzen jarraituko duela. Horiek horrela izan arren, erakunde horrek argitaratu dituen azken oharretan iradokitzen da datozen hilabeteetan diruaren salneurrian beherazko mugimendu gehiago gerta daitezkeela.





2006ko abuztuan, lau hiruhilabetez jarraian gero eta gehiago hazi ondoren, Erresuma Batuko ekonomiaren susperraldia ondo bideratuta zegoela ematen zuen. Hazkunde sendo horretaz baliatuta eta inflazioa epe ertainerako helburuetara itzultzeko asmoz, Ingalaterrako Bankuak interes tasen bilakaeran goranzko joera hastea erabaki zuen. Bost aldiz 25 oinarri puntu banako gehikuntzak ezarri ondoren, 2007ko uztailan erreferentzia tasa %5,75ean kokatu zuen, 2001eko apiriletik izan duen baliorik gorena. Une horretatik aurrera, Ingalaterrako Bankuaren batzordeko kideek interes tasak bere horretan uztea erabaki zuten, ekonomian egon zitekeen motelaldia saihesteko. Hala eta guztiz ere, analisigile askok aurreikusten dute interes tasak aurten bertan jaitsiko direla, kreditu globalaren murrizketak britainiar ekonomian eragin izango duen neurrian.

2001. urteko martxotik aurrera, Japoniako Bankuak interes tasak ia hutsean mantendu zituen, prezioen jaitsiera orokorra saihesteko. Hala ere, 2006ko martxoan eta Japoniako egiturazko kontsumoko prezioen indizeak –elikagai freskoak barnean hartzen ez dituen adierazlea baita– hirugarren aldiz gora egin zuela eta ia zortzi urteko igoerarik handiena izan zuela jakitean, Japoniako Bankuak amaitutzat jo zuen ordura arteko moneta politika eroso, aurreko bost urtean deflazioari aurre egiteko erabili izana. Horiek horrela izanda, 2006ko uztailan, Japoniako Bankuak atzean utzi zuen interes tasak %0an edukitzeko hamarkada oso bat eta

%0,25era igo zituen. Harez geroztik, ekonomiaren datu txar batzuek eta oposizio politikoak ez zuten ahalbidetu igoera berriak onartzea. 2007ko otsaila arte itxaron behar zen beste gehikuntza bat ezagutzeko. Hura ere puntu laurden batekoa izan zen eta tasak %0,5ean kokatu ziren, hamarkada oso batean izan duten altuena baita. Japoniako ekonomiak ez du behar oraingoz moneta politika gogortzea, inflazio tentsiorik ez duelako, alderantziz baizik.

EBZk euroarentzat ezarritako truke tasa ofizialak **26. irudia**

Moneta unitateak euro bakoitzeko



Iturria: Espainiako Bankua.

2006ko urteko txostena

Dibisen merkatuan, Europako ekonomiaren hobekuntzak eta Europako Banku Zentralak ezarri zituen interes tasen igoerak euroaren sendotzea ahalbidetu zuten, dibisa nagusien aldean balioa irabazi zuelako.

2006. urte osoan euroak balioa irabazteko joera garbia erakutsi zuen, bereziki dolarraren eta yenaren aldean. AEBetako eta Euroguneko interes tasen arteko aldea murriztu izanak azaltzen du zergatik sendotu den euroa, bereziki Erreserba Federalak bere erreferentzia tasa 50 oinarrizko puntu jaistera erabaki zuenetik.

2001. urtetik, billete berdeak balioa galdu du euroaren aldean eta joera hori 2007. urteko azken hilabeteetan areagotu da. Zehazkiago adierazita, 2007ko urrian euroak dolarraren aldean izan duen balioa maximoz maximo ibili da, europar diruaren truke 1,4348 dolar ordaindu direlarik, estatubatuar ekonomiaren ahuleziaren ondorioz. Analisisgileen arabera, sendotze garrantzitsu horren atzean AEBetako interes tasak berriro jaitsiko direlako ustea dago, datu makroekonomiko txarrak argitaratu ondoren eta 2007ko hirugarren hiruhilekoan bankuek emaitza oso apalak jaso eta gero.

Euroak yenaren aldean izan zuen ibilbidea antzekoa izan zen. 1998 eta 2000 urteen epealdian yenak balioa irabazi ondoren, 2001. urtetik aurrera Japoniako diruak ez du baliorik irabazi euroaren aldean. Hain zuzen ere, denbora tarte horretan, euroak %45etik gora irabazi du yenaren aldean eta 2000. urtean 99,5 yen ordaintzen baziren euro baten truke, 2006. urtean batez beste 146,1 yen eman behar ziren. Gaur egun joera hori are garrantzitsuagoa da eta Europako diru bakarra inoizko baliorik gorenetan kotizatzen da berriro, 166,45 yenetara iritsita, Japoniako Bankuak interes tasak bere horretan uzteko erabakiak bultzatuta.

Libra esterlinak, berriz, joera egonkorragoa erakutsi zuen eta urteko zenbait hilabeteetan euroaren aldean balioa galdu bazuen ere, batez bestean ia ez zuen ezer aldatu bere kotizazioan. Suitzako frankoak, azkenik, 2002. urtean hasi zuen balioa galtzeko joera leunari jarraipena eman zion eta 2006. urtean 1,573 euroko kotizazioa izan zuen.

Burtsa merkatuetan oso emaitza onak lortu ziren eta irabaziak jaso ziren laugarren urtez jarraian. Inoizko emaitzarik onenak izan dira errentagarritasunean, likidezian, kapitalizazioan eta kontratazioan, eta kotizatzen diren sozietateen mugimendu korporatiboek burtsa merkatuak ekonomia eta finantza panoramaren jomugan kokatu dituzte. Horri gehitu behar


zaio enpresek lortu dituzten emaitza bikainak, eremuan oraindik dagoen likidezia handia eta enpresen bat egiteetan eta erosketetan gauzatu diren erabakiak.

Arreta berezia merezi du Espainiako burtsak, %32ko errentagarritasunarekin munduko merkatu handien artean errentagarritasun handiena lortu zuena izan zelako. 1998. urtetik aurrera Ibx 35 indizeak lortu duen igoerarik handiena da. Espainiako burtsak lau urtean %135 errentagarritasuna metatu du.

Kredituen interes tasak, Europako Banku Zentralaren interes ofizialen igoeraren ondorioz, nabarmen gehitu izanak eragina izan zuen moneta merkatuen bilakaeran. Hain zuzen ere, urte baterako euriborrak, hipoteken merkatuan gehien erabiltzen den indizea baita, %3,92ko tasa lortu zuen 2006ko abenduan, 2002ko maiatzetik izan duen gorena delarik.

Urte baterako euriborraren bilakaera

27. iludia



Iturria: Espainiako Hipoteka Elkarte.

Euriborrak Europako Banku Zentralak interes tasetan egingo dituen mugimenduak aurreratzen ditu eta interes tasetan igoera berriak espero badira euriborrak gora egiten du. Bere bizitzako 105 hilabeteetan 22 aldiz bakarrik gainditu du %4, gehienezko balioa %5,339 eta

2006ko urteko txostena

gutxienezkoa %2,007 izan dituelarik. 2007ko ekainean, euriborrak %4,5eko muga gainditu zuen eta irailean %4,807ra iritsi zen, nahiz eta urriaren amaierarako %4,564ra jaitsia zen. Euriborrak azken bi urtean izan dituen gorakada horiek hipoteken ordainketa %28 goratu dute. Izan ere, 2006. urtean, Estatuko familien zorra –datu hau ez dago banatuta autonomia erkidegoen artean- %18,6 hazi zen, familien zorpetze mailan inoizko baliorik gorena berriro ezarriz. Bederatzi urteko epean familien zorrak hirukoiztu du 1998. urteko datua.

Euskal Autonomia Erkidegoan, kreditu pribatuek hazkunde erritmo garrantzitsuak jasotzen jarraitu zuten, baina ez ziren errepikatu 2005. urteko gehikuntza sendoak (%16,9 2006an eta %18,9 2005ean). Hala ere, emaitza horrek azken urteetako datuak nabarmen gainditu zituen, ekonomiaren abagunea lagungarria izan zelako eta interes tasa errealak apalak zirelako. Familien zorren hazkundera bereziki epe luzerako maileguetan gauzatu zen, gehienak hipoteka maileguak zirelarik, 2006. urtean %14,0 areagotu zirelako, hots, 2005. urtean baino zazpi hamarren gehiago. 2007ko lehen seihilekoan, interes tasen presioak eta euriborraren etengabeko igoerek hipoteken erritmoa nabarmen galgatu duten arren, hazkundera hala EAEn nola Estatuan %7tik gorakoa izan zen berriro.

Bankuen gordailuek askoz ere emaitza positiboagoa lortu zuten. Finantza erakunde guztiek gordailuak lortzeko kanpainak martxan jarri zituzten, neurri batean, kredituen eskaera sendoa finantzatu ahal izateko. Zehazkiago adierazita, arlo pribatuak banku sistema ezarritako baliabideak %16,3 hazi ziren, 1987. urtetik inoiz jaso den tasarik altuena baita.

EAE-RAKO ETA TESTUINGURURAKO EKONOMIA AURREIKUSPENAK

Kanpo testuinguruarentzat eginiko aurreikuspenak

Nazioarteko erakundeek eta gobernuek munduko ekonomiaren jarduera zertxobait motelduko dela 2008. urtean espero dute. Finantza merkatuetan gertatu berri diren ezegonkortasunen ondorioz, ekonomia osoaren hazkundeari buruz dauden aurreikuspenak beherantz berrikusi dira 2008. urteari dagokionez, baina oraindik hazkundera oso sendoa izango dela espero da. Berrikuste nagusiak AEBetako hazkundeari buruzkoak dira, NDF erakundeak gaur egun eta 2008. urterako %1,9an kokatzen duena. Halaber, zuzenketak egin dira estatubatuar ekonomiaren menpean dauden herrialdeetako aurreikuspenetan eta finantza merkatuetako krisiak eragin negatiboa izango duen ekonomietan ere.

EKONOMIA AURREIKUSPENAK

37. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	BPG				Inflazio tasa	
	Aurreikuspenak		Udaberriko txostenarekiko aldea		Aurreikuspenak	
	2007	2008	2007	2008	2007	2008
Munduko ekonomia	5,2	4,8	0,3	-0,1	---	---
AEB	1,9	1,9	-0,3	-0,9	2,7	2,3
Kanada	2,5	2,3	0,1	-0,6	2,2	1,9
Japonia	2,0	1,7	-0,3	-0,2	---	0,5
Eurogunea	2,5	2,1	0,2	-0,2	2,0	2,0
Europar Batasuna	3,0	2,5	0,2	-0,2	2,3	2,3
Alemania	2,4	2,0	0,6	0,1	2,1	1,8
Espainia	3,7	2,7	0,1	-0,7	2,5	2,8
Frantzia	1,9	2,0	-0,1	-0,4	1,6	1,8
Herbehereak	2,6	2,5	-0,3	-0,2	2,0	2,2
Italia	1,7	1,3	-0,1	-0,4	1,9	1,9
Erresuma Batua	3,1	2,3	0,1	-0,4	2,4	2,0
Errusia	7,0	6,5	0,2	0,6	8,1	7,5
Txina	11,5	10,0	0,6	0,5	4,5	3,9
India	8,9	8,4	0,5	0,6	6,2	4,4
Argentina	7,5	5,5	---	---	9,5	12,6
Brasil	4,4	4,0	---	-0,2	3,6	3,9
Txile	5,9	5,0	0,7	-0,1	3,9	4,1
Venezuela	8,0	6,0	1,8	4,0	18,0	19,0

Iturria: NDF. 2007ko urria.





2006ko urteko txostena

Garapen bidean dauden ekonomien hazkunde oinarriak bere horretan daude eta beren bizitasunak jarraituko du. Hala eta guztiz ere, arriskuak areagotu dira. Arrisku horiek finantza merkatuetatik eta AEBetako zein mendebaleko Europako barne eskaritik datoz. Kreditu merkatuan ezarri den diziplina gogorra oztopoa izan daiteke hazkunderako epe laburrean eta ertainean. Zer neurritan kaltetuko dituen ekonomiak merkatuaren likideziak eta kredituak emateko orduan ezarriko den zorroztasunak erabakiko dute.

Munduko BPGren bilakaera

28. irudia


Urte arteko aldakuntza tasak



Iturria: NDF.


Egon badaude munduko ekonomian eragin garrantzitsua izan dezaketen beste arrisku batzuk ere. Alde batetik, inflazioa kezkatzeko modukoa izan daiteke petrolioaren salneurriak berriki inoizko baliorik altuenak hartu dituela ikusita. Beste aldetik, desoreka batzuk oraindik egotea ekonomia globalak nozitzen duen beste arrisku bat da.

Euroaren eta dolarraren truke tasaren bilakaera 29. irudia



Iturria: Espainiako Bankua eta Ceprede.

Petrolioaren prezioaren bilakaera 30. irudia



Iturria: Ekonomia eta Ogasun Ministerioa eta Ceprede.

Espanian, azterlan zerbitzu nagusiek, Funcasen aditu taldean bilduta, BPGren hazkundera %3,8 izango dela 2007an eta %3,0 2008an adierazten dute. Horrek moteltze arina seinalatzen du 2006. urtean lortutako %3,8aren aldean. Hurrengo urteetan, Ceprederen estimazioek aurreratzen dutenez, ekonomiaren erritmoa argi eta garbi motelduko da.

Moteltze horren jatorria barne eskarian dago kokatuta eta, zehazkiago, familiek eragin handiena duten osagaietan: kontsumoan eta etxebizitzetan eginiko inbertsioan. Interes tasen igoerak finantzazioaren kostua garestitu du eta familiek egin duten kreditu eskaria gutxitu da, nahiz eta oraindik gehikuntza maila garrantzitsuetan dagoen. Kontsumoa errenta erabilgarriaren eta aberastasun efektuaren jaitsierarengatik apalduko da eta etxebizitzetan eginiko inbertsioa, berriz, interes tasen igoeraren ondorioz eta etxebizitzetan balio gutxiago haziko delako ustearen ondorioz.

2006ko urteko txostena

ESPAINIARENTZAKO AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK (2007ko iraila-urria)

38. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	BPG		Familien kontsumoa		Kontsumo publikoa		Inbertsioa guztira		Inbertsioa eraikuntzan		Inbertsioa ekipamenduan	
	2007	2008	2007	2008	2007	2008	2007	2008	2007	2008	2007	2008
AFI	3,7	2,8	3,2	2,8	5,2	4,2	5,5	2,4	3,6	0,1	11,3	7,3
BBVA	3,8	2,8	3,2	2,8	5,4	5,1	6,0	2,8	4,2	1,9	10,8	4,4
Caixa Catalunya	3,9	3,3	3,3	3,0	5,5	5,7	6,3	5,5	4,6	3,7	11,4	7,7
Caja Madrid	3,8	2,7	3,2	2,6	5,3	4,7	5,9	2,2	3,8	0,0	11,7	5,5
CEPREDE-UAM	3,9	2,8	3,3	2,4	5,3	4,5	6,4	4,6	4,6	3,2	12,7	8,5
Merkatal ganbarak	3,8	3,1	3,2	2,7	5,1	4,3	6,1	4,1	4,4	2,4	11,3	7,4
FUNCAS	3,9	2,9	3,3	2,9	5,2	5,2	6,2	2,9	4,3	0,6	12,0	7,3
ICAE-UCM	3,9	3,0	3,2	2,9	5,4	4,7	6,2	4,0	4,5	2,1	11,5	7,5
ICO	3,8	3,3	3,3	3,0	5,2	4,5	6,1	4,4	4,5	3,4	11,6	7,6
IEE	3,7	3,2	3,3	2,9	6,0	4,5	5,5	4,5	5,0	3,5	8,0	6,0
IFL-UC3M	3,8	3,0	3,3	3,0	5,1	4,2	6,6	5,4	4,6	3,8	12,2	8,3
Intermoney	3,9	3,0	3,3	2,8	5,5	4,7	6,2	2,9	4,3	-0,2	12,5	7,8
La Caixa	3,8	2,9	3,2	3,7	5,3	4,7	6,2	3,7	4,3	1,7	12,6	8,9
SCH	3,9	3,0	3,2	2,5	5,1	4,5	5,9	2,6	4,4	0,7	11,4	6,5
Batez bestea	3,8	3,0	3,2	2,9	5,3	4,7	6,1	3,7	4,4	1,9	11,5	7,2
Gogoratzekoa:												
Gobernua (2007-07)	3,8	3,3	3,4	3,1	4,8	4,4	5,8	4,6	5,1	3,8	---	---
Europ B. (2007-05)	3,7	3,4	3,5	3,3	4,6	4,8	6,0	5,0	4,7	3,4	9,9	7,7
NDF (2007-04)	3,8	3,4	3,3	3,2	4,0	3,8	5,6	4,8	---	---	---	---
ELGE (2007-05)	3,6	2,7	3,6	2,8	5,5	3,9	4,8	2,7	---	---	---	---

Iturria: Funcasen adituen taldea.

ESPANIARENTZAKO AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK (2007ko iraila-urria)

39. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasa

	Nazio eskaria		Esportazioak		Inportazioak		KPI (batez bestea)		Enplegua		Langabezia tasa (BAI)	
	2007	2008	2007	2008	2007	2008	2007	2008	2007	2008	2007	2008
AFI	4,5	3,1	4,7	5,1	6,1	4,9	2,6	2,4	2,6	1,9	8,1	8,4
BBVA	4,3	3,2	4,4	4,0	5,8	4,9	2,6	2,6	2,9	1,6	8,0	8,0
Caixa Catalunya	4,5	4,3	4,7	6,1	6,8	8,3	2,4	2,6	---	---	7,9	7,2
Caja Madrid	4,3	2,9	4,5	4,1	6,1	4,5	2,6	2,6	3,0	1,9	8,1	8,3
CEPREDE-UAM	4,6	3,4	4,4	4,7	6,6	6,3	2,5	2,5	3,0	1,9	8,1	8,5
Merkatal ganbarak	4,3	3,3	4,5	4,4	5,7	4,8	2,8	2,5	2,9	2,3	8,2	8,2
FUNCAS	4,5	3,3	4,7	5,0	6,7	5,9	2,6	2,9	3,1	1,9	8,0	8,2
ICAE-UCM	4,7	3,7	4,6	4,6	6,3	5,1	2,5	2,8	3,0	2,1	8,1	8,2
ICO	4,4	3,7	4,6	4,7	6,4	5,8	2,5	2,7	3,0	2,5	8,0	7,8
IEE	4,4	3,8	5,0	5,0	7,0	5,5	2,6	2,7	2,7	2,3	8,1	8,1
IFL-UC3M	4,5	3,9	4,2	3,9	6,7	6,8	2,6	2,8	---	---	8,1	8,0
Intermoney	4,5	3,3	4,7	5,2	6,4	5,1	2,5	2,3	3,0	1,8	8,0	8,5
La Caixa	4,5	3,4	4,5	5,3	6,6	4,8	2,5	2,6	3,0	2,1	8,0	8,0
SCH	4,3	3,0	4,5	5,0	6,0	4,1	2,6	2,9	2,7	2,0	8,0	8,2
Batez bestea	4,5	3,4	4,6	4,8	6,4	5,5	2,6	2,6	2,9	2,0	8,1	8,1
Gogoratzekoa:												
Gobernua (2007-07)	4,3	3,7	5,4	5,0	6,8	6,0	2,7	2,6	2,8	2,2	7,8	7,7
Euro B. (2007-05)	4,7	4,3	5,8	5,4	7,6	7,0	2,5	2,6	2,8	2,5	8,1	7,8
NDF (2007-04)	4,0	3,7	6,2	6,2	7,3	6,9	2,6	2,7	2,7	2,4	7,8	7,7
ELGE (2007-05)	4,2	2,9	6,3	6,3	7,9	6,5	2,5	2,7	3,4	2,6	8,2	8,1

Iturria: Funcasen adituen taldea.

Enpleguari dagokionez, 2007an eta 2008an emaitza onak jasoko diren arren, hazkunde eritimoa zertxobait galgatu da. Oraindik badago esatea lan merkatua sendo ibiliko dela, baina hazkunde txikiago horrek eragina izan dezake kontsumoaren bilakaeran.

2006ko urteko txostena

ESPAINIAKO EKONOMIARENTZAKO AURREIKUSPENAK (2007ko iraila)

40. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2007	2008	2009	2010
BPG	3,9	2,8	2,3	1,8
Kontsumo pribatua	3,3	2,4	2,1	1,6
Kontsumo publikoa	5,3	4,5	2,6	2,0
Kapital finkoaren eraketa gordina	6,4	4,6	3,5	1,3
- Inbertsioa ekipamenduan	12,7	8,5	6,4	4,1
- Inbertsioa bestelako ekoizkintan	3,9	3,7	5,0	2,0
- Inbertsioa eraikuntzan	4,6	3,2	2,0	-0,2
Barne eskaria	4,6	3,4	2,6	1,6
Esportazioak	4,4	4,7	5,6	5,3
Inportazioak	6,6	6,3	5,8	3,9


Iturria: CEPREDE.

Hala eta guztiz ere, hazkundearen iraunkortasuna kanpoko alderdiek baldintzatuko dute, hala nola Europako ekonomiaren bilakaerak eta lehengaien prezioek, baina baita espainiar ekonomiaren egiturazko arazoei ematen zaien irtenbidea ere, prezioen bidezko lehiakortasun galera, kasu. Kontsumoa eta eraikuntza gutxiago haziko direla ziurtzat jo daiteke. Beraz, BPGren moteltzea konpentsatzeko hautagai bakarrak esportazioak eta ekipamendurako ondasunetan eginiko inbertsioa izango dira.

Estatuko BPGren bilakaera

31. irudia

Urte arteko aldakuntza tasak




Iturria: INE eta CEPREDE.

Estatuko hazkunderari eginiko ekarpenak

32. irudia

Urte arteko aldakuntza tasak



Iturria: INE eta CEPREDE.

EAEko ekonomiarako aurreikuspenak

Euskal Autonomia Erkidegoak harreman estuak ditu Europako herrialde nagusiekin. Beraz, datozen urteetako bilakaera inguruneko ekonomien emaitzek baldintzatuko dute. Hori dela eta, Europa osoarentzat aurreratzen den moteltzea Euskadin ere gertatuko dela pentsatu behar da. Horiek horrela izanda, datozen urteetan EAEko ekonomiaren hazkundera txikiagoa izango dela espero da. 2007. urterako egin diren azken aurreikuspenek %4,0 haziko dela estimatu dute, hurrengo urteetan erritmo hori gero eta txikiagoa izango dela aurreikusiz. BPGrako aurreikusten diren urte arteko hazkunde tasak %3,6an kokatzen dira 2008. urtean, %3,2an 2009an eta %2,7an 2010ean. Beheranzko joera hori zikloaren gehieneko balio 2006ko lehen hiruhilekoan lortu ondoren gertatu da.

EAE-KO EKONOMIARENTZAKO AURREIKUSPENAK

41. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2007	2008	2009	2010
BPG	4,0	3,6	3,2	2,7
Azken kontsumoa	3,6	3,3	3,0	2,7
Kontsumo pribatua	3,7	3,5	3,1	2,8
Kontsumo publikoa	3,2	2,7	2,4	2,2
Kapital eraketa gordina	6,3	5,4	4,5	4,0
Barne eskariaren ekarpena	4,6	4,2	3,4	3,1
Kanpo eskariaren ekarpena	-0,6	-0,7	-0,2	-0,4
Lehen arloa	3,7	-4,9	-1,5	-2,7
Industria	4,6	4,3	3,5	2,6
Eraikuntza	4,0	2,8	2,0	1,3
Zerbitzuak	3,6	3,2	3,0	2,7
Balio erantsi gordina	3,9	3,4	3,0	2,5
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	4,7	4,7	4,9	4,5
BPGren deflatoarea	3,3	3,2	3,0	3,1
Enplegua	2,5	2,1	1,8	1,3
Langabezia tasa	3,5	3,7	3,7	3,9

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.


2006ko urteko txostena

Eskaintzaren ikuspegitik, EAEko ekonomiaren hazkundearen oinarria zerbitzuak izango dira, oso hurbiletik industriak jarraituko diola. Beraz, hazkundera EAEko ekoizpen egituran pisu gehien duten arloetan oinarrituko da. Aurreikuspen onenak industrian eta zerbitzuetan mantentzen dira eta aurtengoak baino hazkunde tasa txikiagoak lortuko dituzten arren, ekoizpenaren joera tonu ona erakutsiko duela pentsarazten du. Ekonomiaren arlo horiek, moteltzeko joera arinarekin bada ere, bizitasunari eutsiko dioten bitartean, eraikuntzaren jarduera ahulduko da datozen urteetan. Interes tasen igoerak, etxebizitzaren balioa gutxiago haztea, kreditu bat lortzeko baldintzak gogortzea eta higiezinaren merkatuaren inguruan sortu diren zalantzak dira etxebizitzaren eskaria gutxituko duten arrazoiak. Hala eta guztiz ere, obra zibilak eta etxebizitzetakoak ez den eraikinen inbertsioak moteltzeko joera sakonagoa ez izatea ahalbidetuko dute.

EAEko BPGren bilakaera

33. irudia

Urte arteko aldakuntza tasak




Iturria: Eustat eta Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

EAEko hazkunderari eginiko ekarpenak

34. irudia

Urte arteko aldakuntza tasak



Iturria: Eustat eta Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

Familien kontsumoak bere hazkundera moteltzeko joera hartuko du. Gaur egun interes tasek duten mailak eta familien zorpetze handiak gaitasuna kentzen dute oraingo gastuari eutsi ahal izateko. Moteltze sakonik ere ez da espero, moneta politikak oraindik ez direlako oso murriztaileak eta enpleguak erritmo onean hazten jarraituko duelako. Orobat, aberastasun efektuak nolabaiteko eragina izango du oraindik. Gauzak horrela izanda, kontsumo pribatua errenta errearen gehikuntzaren inguruan haziko dela espero da, azken hau enpleguaren eta

soldata errealeen igoeraren arabera aldatzen baita, eta zorpetze eta aurrezkien banaketa azken aldagai horren alde orekatuko direla.

Kapital eraketa gordinak ere motelduko du bere hazkundera datozen urteetan, bereziki 2008. urtean eta 2009an. Izan ere, 2008. urtean estatubatuar hipoteken krisiak indar gehiagoz kolpatuko ditu ekonomiak. Kostuen gorakadak, batez ere energiaren kostuek, enpresen zorpetze maila eta beraien mozkinak kaltetuko ditu. Hala eta guztiz ere, ekipamendurako ondasunetan egingo den inbertsioaren hazkundera bikainak neurri batean konpentsatuko du eraikuntzan egindako inbertsioaren apaltzea.

Kanpo arloak BPGren gehikuntzari egiten dion ekarpen negatiboa gero eta txikiagoa izango da, inportazioen erritmoa apalduko den neurrian. Hala ere, bezero nagusien barne eskaria ere motelduko denez, 2008an ekarpen negatiboa 2006koaren antzekoa izango da eta 2008 eta 2010 urteetara itxaron beharko da ekarpen horren murrizketa garrantzitsu bat ikusteko.

Eszenategi honetan ez da aurreikusten hobekuntza adierazgarririk prezioen bilakaeran, bereziki deflatorean, %3tik gorako hazkundera tasak jasotzen jarraituko duelako. Lehengaien merkatuetan sortu diren presioek eta garapen bidean dauden herrialdeek egiten duten eskari sendoek zail egingo dute eskaintza eskariaren gorakada horri egokitzea. Ez da inflazio handirik espero, baina gaur egungo egoera ez da zuzenduko.

Eszenategi honetan aurreikusten den moteltzean, enplegu berria sortzeko ahalmena ere txikiagoa izango dela espero da, 2010. urtean %1,3ra mugatuko delarik. Barne eskariaren moteltzea, kontsumo pribatuaren apaltzea eta lan esku asko erabiltzen dituzten zerbitzuek nozituko duten galga dira lanpostuak sortzeko erritmoa galgatuko duten alderdiak. Hala ere, industriak hartuko duen protagonismo erlatibo handiagoak pentsarazten du ekoizkortasun irabaziak oso garrantzitsuak izango direla datozen urteetan, hazkunderaren iraunkortasunerako oso lagungarria izango baita. Era berean, langabezia tasak maila txikietan jarraituko du enplegua eskatuko duten lagun berrien kopurua oraingoa bezalako izango dela espero delako. Beraz, langabezia tasa %4aren azpian egongo da eszenategi honetan kontuan hartu den epealdi osoan.

Laburbilduz, EAeko ekonomiaren hazkundera motelduko da datozen urteetan, ekonomia aurreratu guztietan eta, neurri txikiagoan, munduko ekonomian ere gertatuko den bezala. Moteltze hori garrantzitsua edo arina izango den, ekonomia mehatxatzen duten arriskuak

2006ko urteko txostena

gertatzeak edo ez baldintzatuko du. Arrisku horien artean, bereziki petrolioaren salneurriaren goranzko joera, tentsio geopolitikoak eta oraindik ezagunak ez diren 2007ko udan sortutako finantza krisiaren ondorioak nabarmendu behar dira.

ESTATISTIKA ERANSKINA**I. atala: Nazioarteko ekonomia**

1. taula	Barne produktu gordina	85
2. taula	Langabezia tasa	86
3. taula	Banakako lan kostu erlatiboa.....	87
4. taula	Kontsumoko prezioen indizea	88

II. atala: Espainiako ekonomia

5. taula	BPG. Eskaintza. Bolumenaren indize kateatua	89
6. taula	BPG. Eskaria. Bolumenaren indize kateatua	90
7. taula	Lan merkatua	91
8. taula	Kontu korronteko ordainketa balantza.....	92
9. taula	Estatuko finantzak	93
10. taula	Batez besteko interes tasak	94

III. atala: EAEko ekonomia

11. taula	BPG EAE uneko prezioak. Eskaintza	95
12. taula	BPG EAE bolumenaren indize kateatua. Eskaintza.....	96
13. taula	Sektoreen partehartzea BEGen(uneko prezioak).....	97
14. taula	BPG EAE uneko prezioak. Eskaria	98
14. taula (jarraip.)	BPG EAE uneko prezioak. Eskaria	99
15. taula	BPG EAE bolumenaren indize kateatuak. Eskaria	100

2006ko urteko txostena

15. taula (jarraip.)	BPG EAE bolumenaren indize kateatuak. Eskaria.....	101
16. taula	16 urteko eta gehiagoko biztanleak eta parte hartzaileak	102
17. taula	Landunak.....	103
18. taula	Langabeak.....	104
19. taula	Partehartze eta langabezia tasak.....	105
20. taula	BAIren aldagai nagusiak.....	106
21. taula	Enplegua erregulatzeko espedienteak	107
22. taula	Hitzarmen kolektiboak eta lan gatazkak	108
23. taula	Kontsumo prezioen indizea.....	109
23. taula (jarraip.)	Kontsumo prezioen indizea.....	110
24. taula	Industria prezioen indizea.....	111
25. taula	Kanpo merkataritza	112
26. taula	Energiakoak ez diren esportazioak arantzel taldeka.....	113
27. taula	Energiakoak ez diren inportazioak arantzel taldeka.....	114
28. taula	Energiakoak ez diren esportazioen geografia helburua	115
28. taula (jarraip.)	Energiakoak ez diren esportazioen geografia helburua	116
29. taula	Energiakoak ez diren inportazioen geografia jatorria	117
29. taula (jarraip.)	Energiakoak ez diren inportazioen geografia jatorria	118

BARNE PRODUKTU GORDINA

1.TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	AEB	Japonia	EB-27	Alemania (1)	Frantzia	Erresuma Batua	Estatua
1985	4,1	5,1	---	---	1,7	3,5	2,3
1986	3,5	3,0	---	---	2,5	4,0	3,3
1987	3,4	3,8	---	---	2,5	4,6	5,5
1988	4,1	6,8	---	---	4,6	5,0	5,1
1989	3,5	5,3	---	---	4,2	2,2	4,8
1990	1,9	5,2	---	---	2,6	0,8	3,8
1991	-0,2	3,4	---	---	1,0	-1,4	2,5
1992	3,3	1,0	---	2,2	1,4	0,2	0,9
1993	2,7	0,2	---	-0,8	-0,9	2,3	-1,0
1994	4,0	0,4	---	2,7	2,2	4,3	2,4
1995	2,5	2,0	---	1,9	2,1	2,9	5,0
1996	3,7	2,7	1,8	1,0	1,1	2,8	2,4
1997	4,5	1,6	2,7	1,8	2,2	3,1	3,9
1998	4,2	-2,0	2,9	2,0	3,5	3,4	4,5
1999	4,4	-0,1	3,0	2,0	3,3	3,0	4,7
2000	3,7	2,9	3,9	3,2	3,9	3,8	5,0
2001	0,8	0,2	2,0	1,2	1,9	2,4	3,6
2002	1,6	0,3	1,2	0,0	1,0	2,1	2,7
2003	2,5	1,4	1,3	-0,2	1,1	2,8	3,0
2004	3,9	2,7	2,5	1,2	2,5	3,3	3,2
2005	3,2	1,9	1,8	0,9	1,7	1,8	3,5
2006	3,3	2,2	3,0	2,8	2,0	2,8	3,9

(1) Datuak Alemania Batua renak dira 1993ko urtarrilaren aurretik.
Iturria: Eurostat.

2006ko urteko txostena

LANGABEZIA TASA

2. TAULA

%

	AEB	Japonia	EB-25	Alemania (1)	Frantzia	Erresuma Batua	Estatua (2)
1985	7,2	2,6	---	---	9,8	11,2	21,5
1986	7,0	2,8	---	---	9,8	11,2	17,4
1987	6,2	2,8	---	---	9,9	10,3	16,7
1988	5,5	2,5	---	---	9,4	8,5	15,8
1989	5,3	2,3	---	---	8,9	7,1	13,9
1990	5,6	2,1	---	---	8,5	6,9	13,1
1991	6,8	2,1	---	---	9,0	8,6	13,2
1992	7,5	2,2	---	---	9,9	9,8	14,9
1993	6,9	2,5	---	6,9	11,7	10,4	17,2
1994	6,1	2,9	---	7,3	12,1	9,5	19,1
1995	5,6	3,2	---	7,1	11,5	8,6	18,7
1996	5,4	3,4	---	7,7	12,1	8,1	17,5
1997	4,9	3,4	---	8,6	12,1	7,0	16,3
1998	4,5	4,1	9,4	8,1	11,5	6,2	14,6
1999	4,2	4,7	9,1	7,5	10,8	6,0	12,2
2000	4,0	4,7	8,6	6,9	9,4	5,5	10,8
2001	4,8	5,0	8,4	6,9	8,7	5,1	10,1
2002	5,8	5,4	8,8	7,6	9,0	5,2	11,0
2003	6,0	5,3	9,0	8,7	9,8	5,0	11,0
2004	5,5	4,7	9,1	9,2	10,0	4,7	10,5
2005	5,1	4,4	8,7	9,1	9,9	4,8	9,2
2006	4,6	4,1	7,9	8,1	9,0	5,5	8,5

Iturria: ELGE, EUROSTAT.

(1) Datuak Alemania Batuarenak dira 1993ko urtarrilaren aurretik.

(2) 2001. urtetik aurrera, langabeziaren datuetan 2005eko metodologia erabiltzen da.

BANAKAKO LAN KOSTU ERLATIBOA

3. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	AEB	EB-25	Alemania	Frantzia	Erresuma Batua	Espainia
1994	-1,1	---	-2,2	-2,0	-2,4	-3,0
1995	-0,5	---	0,0	-0,3	-1,1	-4,2
1996	-1,2	-0,7	-0,5	-0,4	-2,7	0,1
1997	-0,7	-0,8	-1,4	-1,0	-0,1	-0,4
1998	1,7	-0,7	-0,4	-1,0	1,0	-0,6
1999	0,4	0,4	0,1	1,1	0,7	-0,7
2000	1,8	-0,1	1,3	-0,3	1,7	-0,6
2001	-0,3	0,4	-0,4	0,3	1,3	-0,9
2002	-2,3	-0,4	-0,7	0,6	-0,7	-1,4
2003	-1,3	-0,3	-0,4	0,1	-0,5	-1,0
2004	-0,8	-1,1	-1,7	-1,1	0,1	-1,2
2005	0,5	-0,3	-1,4	0,0	1,8	-2,1
2006	---	-0,7	-1,5	-0,4	-0,3	-1,1

Iturria: Eurostat.

2006ko urteko txostena

KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEA

4. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	AEB	Japonia	EB-25	Alemania (1)	Frantzia	Erresuma Batua	Estatua
1985	3,5	2,0	---	2,1	5,8	5,2	8,8
1986	1,9	0,6	---	-0,1	2,5	3,6	8,8
1987	3,6	0,1	---	0,2	3,3	3,7	5,2
1988	4,1	0,7	---	1,3	2,7	4,6	4,8
1989	4,8	2,3	---	2,8	3,5	5,9	6,8
1990	5,4	3,1	---	2,7	3,2	8,1	6,7
1991	4,2	3,2	---	4,1	3,4	7,5	5,9
1992	3,0	1,7	4,0	5,1	2,5	4,2	5,9
1993	3,0	1,3	3,4	4,4	2,2	2,5	4,9
1994	2,6	0,7	2,8	2,7	1,7	2,0	4,6
1995	2,8	-0,1	3,0	2,7	1,8	2,7	4,6
1996	2,9	0,0	3,1	1,2	2,1	2,5	3,6
1997	2,3	1,7	2,6	1,5	1,3	1,8	1,9
1998	1,5	0,7	2,1	0,6	0,7	1,6	1,8
1999	2,2	-0,3	1,6	0,6	0,6	1,3	2,2
2000	3,4	-0,8	2,4	1,4	1,8	0,8	3,5
2001	2,8	-0,8	2,5	1,9	1,8	1,2	2,8
2002	1,6	-0,9	2,1	1,3	1,9	1,3	3,6
2003	2,3	-0,3	1,9	1,0	2,2	1,4	3,1
2004	2,7	0,0	2,1	1,8	2,3	1,3	3,1
2005	3,4	-0,4	2,2	2,0	1,9	2,1	3,4
2006	3,2	0,2	2,2	1,8	1,9	2,3	3,6

(1) Alemania Batua, ELGEk lotutako serieak.
Iturria: ELGE, EUROSTAT

BPG ESTATUA. ESKAINTZA. BOLUMENAREN INDIZE KATEATUA

5. TAULA

	BPG	Nekazaritza eta arrantza	Energia	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak	Merkatu Zerbitzuak	Merkat. ez diren zerbitzuak	Produkt. gain. zerga garbiak.
1996	83,8	85,2	96,6	80,3	79,8	85,4	84,4	89,0	77,4
1997	87,0	91,3	98,1	85,5	81,6	87,9	87,0	91,1	82,4
1998	90,9	94,1	96,2	90,6	87,2	91,2	90,6	93,4	88,7
1999	95,2	93,2	97,1	95,8	94,4	95,2	94,8	96,5	95,2
2000	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
2001	103,6	98,0	104,0	103,2	108,6	103,6	103,7	103,1	103,2
2002	106,5	98,5	104,9	103,1	115,4	106,6	106,8	106,0	107,6
2003(b)	109,7	97,8	109,7	104,0	121,2	109,8	109,6	110,4	114,7
2004(b)	113,3	99,7	112,1	104,4	127,5	113,7	113,5	114,4	119,7
2005(a)	117,2	89,7	116,3	104,6	134,4	118,7	118,8	118,5	126,6
2006 (a)	121,8	89,9	118,6	108,1	141,4	122,9	122,9	123,2	134,5

Urte arteko aldakuntza tasak

	BPG	Nekazaritza eta arrantza	Energia	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak	Merkatu Zerbitzuak	Merkat. ez diren zerbitzuak	Produkt. gain. zerga garbiak.
1997	3,9	7,1	1,5	6,4	2,3	2,9	3,1	2,3	6,4
1998	4,5	3,1	-1,9	6,0	6,9	3,8	4,2	2,5	7,7
1999	4,7	-1,0	0,9	5,7	8,3	4,3	4,6	3,3	7,3
2000	5,0	7,3	3,0	4,4	5,9	5,1	5,5	3,7	5,0
2001	3,6	-2,0	4,0	3,2	8,6	3,6	3,7	3,1	3,2
2002	2,7	0,4	0,8	-0,1	6,3	3,0	3,0	2,8	4,3
2003(b)	3,0	-0,7	4,5	0,9	5,1	2,9	2,6	4,2	6,6
2004(b)	3,2	1,9	2,2	0,4	5,1	3,6	3,6	3,7	4,4
2005(a)	3,5	-10,0	3,8	0,3	5,4	4,4	4,6	3,5	5,7
2006(a)	3,9	0,3	2,0	3,3	5,3	3,6	3,4	4,0	6,3

(b) Behin-behinekoa

(a) Aurrerapena

Iturria: INE.

2006ko urteko txostena

BPG ESTATUA. ESKARIA. BOLUMENAREN INDIZE KATEATUA

6. TAULA

	BPG.	Gastua azken kontsumoan	Kontsumo pribatua	FZIAGEen azken kontsumoa	Kontsumo publikoa	KEG	KFEG	Ondasun eta zerb. esport.	Ondasun eta zerb. inport.
1996	83,8	84,2	83,8	71,1	86,1	72,3	72,6	67,9	61,0
1997	87,0	86,8	86,5	73,9	88,2	75,7	76,3	78,1	69,1
1998	90,9	90,7	90,7	78,8	91,3	84,9	84,9	84,4	79,4
1999	95,2	95,2	95,4	88,5	95,0	94,2	93,8	90,7	90,2
2000	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
2001	103,6	103,5	103,4	104,5	103,9	104,4	104,8	104,2	104,5
2002	106,5	106,8	106,3	108,8	108,6	108,0	108,3	106,2	108,4
2003(b)	109,7	110,3	109,3	111,0	113,8	113,7	114,7	110,1	115,2
2004(b)	113,3	115,5	113,9	116,3	120,9	119,5	120,5	114,7	126,3
2005(a)	117,2	120,5	118,6	123,1	126,8	127,7	128,9	116,4	135,1
2006(a)	121,8	125,2	123,0	129,2	132,4	136,0	137,0	123,6	146,4

Urte arteko aldakuntza tasak

	BPG	Gastua azken kontsumoan	Kontsumo pribatua	FZIAGEen azken kontsumoa	Kontsumo publikoa	KEG	KFEG	Ondasun eta zerb. esport.	Ondasun eta zerb. inport.
1997	3,9	3,0	3,2	4,0	2,5	4,8	5,0	15,0	13,3
1998	4,5	4,5	4,8	6,7	3,5	12,1	11,3	8,0	14,8
1999	4,7	5,0	5,2	12,3	4,0	11,0	10,4	7,5	13,7
2000	5,0	5,0	4,9	12,9	5,3	6,1	6,6	10,2	10,8
2001	3,6	3,5	3,4	4,5	3,9	4,4	4,8	4,2	4,5
2002	2,7	3,2	2,8	4,1	4,5	3,4	3,4	2,0	3,7
2003(b)	3,0	3,3	2,8	2,0	4,8	5,3	5,9	3,7	6,2
2004(b)	3,2	4,7	4,2	4,8	6,3	5,1	5,0	4,1	9,6
2005(a)	3,5	4,3	4,2	5,9	4,8	6,9	7,0	1,5	7,0
2006(a)	3,9	3,9	3,7	5,0	4,4	6,5	6,3	6,2	8,4

(b) Behin-behinekoa

(a) Aurrerapena

Iturria: INE.

LAN MERKATUA

7. TAULA

Milaka lagun

	16 urte eta gehiagoko biztanleria	Parte hartzaileak	Landunak	Langabeak	Partehartze tasa	Langabezia tasa
